

Enpresetan euskara txertatzeko gida argitaratu du mankomunitateak / 6

Uharte Arakilgo Udalak eskolaren erabateko energia birgaitzea egin nahi du / 7

Dena prest larunbatean Altsasuko Duatloia jokatzeko. Goizez, txikiak, eta arratsaldez, nagusiak / 21

Geuretik sortuak ekimenaren 'Harri minak' antzezlanaren izanena da hilaren 25ean, Etxarrin / 22



Igandean Olaztiko Lilasterketan parte hartzera animatu dituzte emakume sakandarrak / 17



Altsasu aterpe

Ukrainar errefuxiatuendako 81 plaza prestatu dituzte, atzo 43 pertsona zeuden / 13

San Migelera zortzi aldiz

Sakana Bizirik taldeko Kepa Gordok larunbatean zortzi aldiz jarrian igo nahi du San Migelera, helburu solidarioarekin: Ion irintarrak duen gaixotasun arraro eta degeneratiboa ezagutaraztea eta ikerketarako diru bilketa egitea

Maidar Betelu Ganboa IRAÑETA / UHARTE ARAKIL

Larunbata festa eguna da, San Jose, aitaren eguna. Egun horretan, ordea, lan handia du aurretik Sakana Bizirik taldeko Kepa Gordo mendi korrikalariak. Goizeko 06:00etan abiatuko da Uharte Arakildik eta zortzi aldiz Aralarko San Migelera igotzea da bere erronka, 18:00etan Uharte Arakilen ekimenari amaiera emateko. "Emaiozu indarra, emaiozu bizitza" leloa duen erronkarekin Noelia Fundazioak egiten duen lana gizarteratu nahi du. Fundazio honek kolageno VI defizitagatik jaiotzeko muskulu distrofia duten haurren senitartekoak biltzen ditu, 8 herrialdeetako 80 familia guztira, eta gaixotasun arraro eta degeneratibo hau duten familiendako ezinbestekoa da, fundazioak sustatzen duen ikerketa baita gaixotasunari aurre egiteko duten esperantza bakarra. Familia horietako bat, Ionen familia, irintarra da.

Egitaraua

Larunbatean 6:00etan abiatuko da Kepa Gordoren erronka, eta 10:00etatik 18:00ak arte Uharte Arakilen eta San Migelen mugimendua egongo dela aurreikusten da. Haurrendako puzgarriak egongo dira, Noelia Fundazioaren berri emango da, eta fundazioaren aldeko ekarpenak jasoko dira bide ezberdinetatik: babesleek emandako produktuen zozketak,



Kepa Gordo, eskuinean, Ion eta bere lagunekin, erronkaren aurkezpenean. UTZITAKOIA

kamisetak eta bestelakoek salmenta, dortsal solidarioak...

Kepa Gordorekin batera San Migelera igo edo jaitsi nahi duenak dortsal solidarioa jantzi eta hala egiteko aukera izango du. Parte hartzeko gonbita egin du Gordok. "Erosi zure dortsal solidarioa 10:00etatik aurrera eta oinez zein korrika, bakarka zein familian, nahieran San Migelera igo eta parte hartu Noelia Fundazioaren aldeko erronka solidarioan" azaldu du korrikalariak.

Ekitaldiarekin bat egin duten babesleek emandako produktuekin osatutako zareak zozketatuko dira, tartean Juan Martinez de Irujok -familiaren lagun onasinatutako pilotak eta Joseba Ezkurdiak sinatutako kamiseta. Bi pilotariak ekitaldira hurbilduko direla aurreikusten da, eta Zetak taldeko Pello Reparazek ere parte hartuko duela iragarri du antolakuntzak.

Jasotakoa, Noelia Fundaziora

Bukaeran, guztiendako pintxo solidarioak izanen dira Uharte Arakilen, eta txokolate jana. Zozketako sariak banatuko dira, eta ekitaldia aurrekuarekin despedituko da. Jasotako guztia Noelia Fundaziora bideratuko da, gaixotasun arraroa ikertzera. Antolakuntzak sakandarrak Uharte Arakileren gerturatzea gonbidatu ditu, "goiz edo arratsalde polita pasatzera eta kolageno VI defizitagatik jaiotzeko muskulu-distrofia duten familiak laguntzera".

ION IRINTARRAK KOLAGENO VI GABEZIARENGATIK JAIOTZEKO MUSKULU-DISTROFIA DU

NOELIA FUNDAZIOAK FINANTZATZEN DUEN IKERKETA DA GAIXOTASUNA DUTENEN ITXAROPENA

Ion

Ionek 11 urte ditu. Oinez hasi behar zenean konturatu ziren haurrak "zerbait ezberdina" zuela. "Konturatu ginen berak ibiltzea nahi zuela, baina ez zuela eusteko indarrik. Pediatrakesan zigun lasai egoteko, haur bakoitzak ibiltzen hasteko bere denbora behar zuela. Haurtzaindegian hasi zenean hezitzaileek ere esan ziguten zerbait berezia nabaritzen ziotela. Ez zen soilik gure irudipena. Lantokikoei kontatu nienean, batek esan zidan neonatologiako mediku bat eza gutzen zuela eta haurraren bideo bat erakutsiko ziola. Eta hark konfirmatu zuen haurrak zerbait zuela" azaldu du Lorea Irigarai Beraza Ionen amak.

Prozesu luzea

Ionen diagnostikoa jakin bitarteko prozesua oso luzea izan da. "Neonatologiako mediku hark Maria Eugenia Yoldi neuropediatraren bideratu gintuen. Ionek zerbait zuela argi zuten, baina ez zekiten zer izan zitekeen. Proba asko egin zizkioten, bata bestearen atzetik, eta, horretaz gain, astero bitan joaten ginen errehabilitaziora. Bide batetik jotzen zuten, baina ez zen gaixotasun hori konfirmatzen; beste bidetik jotzen zuten, eta ezer.

2017an Ionek konbultsio agerrialdi bat izan zuen eta hainbat egun Zainketa Intentsiboetako Unitatean egon behar izan zuen. Yoldi neurologoak esan zigun Ionen egoera genetikaren bidetik hasiko zirela ikertzen, eta bere kasua programa berezi batean sartzea lortu zuten. Eta hor dektatu zuten Ionen gaixotasuna eta diagnostikoa: Ionek kolageno VI gabeziarengatik jaiotzeko muskulu-distrofia du. Gaixotasun arraro eta degeneratiboa da, giharretan eragina duena, eta gaur egun ahalik eta errehabilitazio gehien egitea da egin dezakegun bakarra, haurrak muskuluetan eta mugimenduan ahalik eta gutxien gal dezan, eta ikerketarako ahal dugun laguntza gehiena lortu" gaineratu du Irigarai.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



100.000tik bakarria

Gaixotasun oso arraroa da: jaiotako 100.000 haurretatik batek du. Nafarroan Ion da bakarria. Orain arte bi mailatan sailkatzen zuten, maila arina edo Beethlem miopatia (giharretan arazoak, hazi ahala nabarmenagoak direnak) eta maila larria edo Ullrich sindromea (jaiotzen direnetik ez dute ibiltzea lortzen), baina orain tarteko maila bat egon daitekeela uste dute medikuek. Ion zein mailatan kokatu ez omen dute argi. "Izan ere Ion oso mugitua da, oso bizia. Txikitatik gainontzeko haurrak bezala izateko ahal duen guztia ematen du, eta haur gogorra da, sufritzen dakiena. Sekulako kolpeak hartzen ditu baina ez du negarririk egiten. Jaiki eta aurrera egiten du. Eguzkeren bere %100a ematen du. Ezin du korrika egin baina ibiltzen da, bere modura, makulurik gabe. Nahiz eta eskailerak igotzea geroz eta gehiago kostatu, moldatzen da. Bi hantetako Akilesen tendoian ebakuntza egin diote eta beste ebakuntza baten zain gaudela. Horregatik ez dakite ongi non sailkatu. Hasieran maila arinean sailkatu zuten, baina uste dute agian tarteko mailakoa izan daitekeela" azaldu du Irigaraiak.

Ion Bidaurretan bizi da, baina Irañetara asko etortzen da, ama bertakoa baita. Besteak bezalako haur bat da, ez da atzean geratzen. "Berak gainontzekoek egiten dutena egiteko modua bilatzen du. Ezin du futbolera edo pilotara jokatu, baina kirolean izan ezik, gainontzeko alorretan bizitza nahiko normala egin dezake, momentuz. Distantziak arintzeko bizikleta elektrikoa eta patinete elektrikoa ditu eta ongi moldatzen da" dio amak.

Horrela mantentzeko ezinbestekoak dira errehabilitazio sesioak. Orkoiengo Auzalar ikastetxean ikasten du, eta Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentrotik hasieratik fisioterapeuta bat jarri zioten ikastetxean bertan saio batzuk egiteko. Horretaz gain familiak bere kabuz fisioterapeutetara eramaten du eta baita igeri egitea ere. Eta Nafarroako Ospitaletik tarteka errehabilitazio saio jarraituak egiten dizkiote. Izan ere, muskuluek ahalik eta gutxien galtzea da helburua. Horretaz gain, arnas aparatua da beste zaintza gune garrantzitsua, kolageno gabezia duten haur askok arnas egiteko laguntza behar



Irujo familiaren laguna da eta Noelia Fundazioaren aldeko ekimenetan parte hartzen du. Bihar ere hurbilduko da. UTZITAKOIA

baitute. Ioni aurki egingo diote proba.

Osasun publikoarekin "oso pozik"

Lorea Irigaraiak oso argi du osasun publikoaren aldetik "laguntza erabatekoa" izan dutela. "Haurrak bi urte zituenean hasi ginen eta 2017an lortu genuen gaixotasunaren diagnostikoa izatea, baina diagnostikoa lortu bitartean ez zuten etsi eta ez gaituzte inoiz utzi. Gure aldetik ere beste zentro pribatuetera jo genuen, baina haietan ez zuten jakin haurrak zer zuen esaten. Nafarroan dugun osasun publikoarekin oso pozik gaudela, eta oso eskertuta" nabarmentzen du Irigaraiak.

Diagnostikoa izateak argia eman zien. "Azkenean, nahiz eta gogorra izan, haurrak zer duen jakin nahi duzu. Izen bat jarri. Zoritxarrez, Ionen gaitza degeneratiboa da, baina hori da tokatu zaiguna. Gaitza diagnostikatu ziotenetik Bartzelonako San Juan de Dios ospitalean daramate bere kasua. Urtean behin edo bitan joaten gara bertara, eta Iruñean handik eskatzen dieten jarraipena eta probak egiten dizkiote" azaldu du irintarrak. Ospitale horretan kolageno VI defizitagaratik jaiotzeko muskulu-distrofiaren inguruko ikerketak egiten ari dira. Hori da gaixoen esperantza bakarria, gaixotasun honek, momentuz, ez baitu tratamendurik. Noelia Fundazioa arduratzen da horretaz.

Noelia Fundazioa

Noelia Fundazioak kolageno VI gabeziarengatik jaiotzeko muskulu-distrofia duten haurrekin lan egiten duen fundazio bakarria



Urriar Sarbil gaina urdinez koloreztatu zuten, Noelia Fundazioaren alde. UTZITAKOIA

da. Helburua gaixotasunaren inguruko ikerketa sustatzea da, eta gaixotasunari ikusgarritasuna emateaz gain, ikerketara bideratzen den diru bilketa egiten du. Fundazio berria da, 2015ean sortutakoa, eta momentuz 8 herrialdeetako 80 familia biltzen ditu, Ionena tartean. "Fundazioan jasotzen den ekarpenaren %100 ikerketara bideratzen da. Bi ikerketa ildo finantzatzen ari dira, bata Bartzelonan, nanopartikulen bidezkoa, eta bestea AEBetan, birus bidezkoa, eta oso pozik gaudela Bartzelonan ikerketan aurrerapen handia egon dela esan digutela eta bide onean daudela uste dutelako" azaldu du Irigaraiak. Gaixotasuna duten haur hauek kolageno VI sortzen duen proteina ez dute sortzen. "Medikuak esan zigun gaixotasuna sortzen duen mutazioaren puntu konkretura heldu nahi dutela, terapiak eta bestelakoak gauzatzeko bide egokia izan dezaten" gaineratu du Irigaraiak.

Eskertuta

Ikerketak aurrera egiteko diru ekarpenak ezinbestekoak dira,

"NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ERABATEKO BABESA IZAN DUGU" LOREA IRIGARAI

"BI BAILARETAN JASOTZEN ARI GAREN BABESAREKIN OSO ESKERTUTA GAUDE" LOREA IRIGARAI

SAKANDARRAK UHARTE ARAKILERA EDO SAN MIGELERA HURBILTZERA GONBIDATU DITUZTE

eta Zazpe Irigarai familia guztiz eskertuta dago ingurunean jasotzen ari diren babesarekin eta laguntzarekin. "Bidaurreta eta Irañetako familietatik hasita, bi herrietako eta bi bailaretako jendearekin jarraituz... oso eskertuta gaudela, denetariko ideiak gauzatu dituztelako fundaziorako diru ekarpena egiteko. Jendearen ekimenez sortu dira ekimen solidario hauek, larunbatean Uhartetako Arakilen egingo den ekimena, esaterako, ez dira familiak antolatuta izan, eta oso eskertuta gaudela" eskertu du Irigaraiak.

Urriar Bidaurretan Sarbil mendira igoera antolatu zen, eta bazkari herrikoia ondoren. Jende askok parte hartu zuen eta sekulako arrakasta izan zen, 20.000 euro jaso baitzituzten ikerketarako. Larunbatean Uhartetako Arakilen izanen da ekitaldi solidarioa. "Guztizko garrantzitsua gaixotasun arraro hau eta Noelia Fundazioak egiten duen lana gizarteratzea da, eta bitartean ikerketarako laguntza lortzea. Jendea deika dugu, ea nola lagundu dezaketen, zein postutan edo lanetan jarriko ditugun, pintxoak egiten, txokolatea prestatzen, zozketako txartelak saltzen... gure gainean gaudela eta eskertuta gaudela. Baita ekimenean parte hartu duten komertzio eta enpresekin ere, euren ekarpena egiteagatik" dio, eskertuta. Uhartetako Arakildik edo Aralartik pasatzeko gonbita egin dute, "goiz eta arratsalde polita" izango delako.

Beti aurrera

Ionek txikitatik daki zer duen. Bere gaitza barneratua du, "baina bera zurrumbilo honetatik kanpo mantentzen saiatzen gara. Ez du protagonista izan nahi. Uhartetako Arakilen egongo da, baina bere lagunekin batera, jolasten, bigarren plano batean" dio Irigaraiak. Semearen gaixotasunak "gauzei benetako balorea ematen" lagundu diela gaineratu du irintarrak. "Ospitale askotan ibili gara eta denetatik ikusi dugu. Ion ahalik eta bizimodu normalena egiten saiatzen da, dena ematen du eta alde horretatik pozik gaudela. Sekulako kolpeak hartu, baina beti altxatu egiten da. Bartzelonako medikuak esaten digu haurra iparraldekoa dela agerikoa dela" dio Irigaraiak, irribarrez. Ea ikerketak ere aurrera egiten duen.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Dekadentea

Oinez hasi naiz eta espaloiairen ondoan hainbat zigarrokin daudela ikusi dut. Pixka bat aurrerago auto baten kapotaren gainean beste zigarrokin bat dago; ikusten denez, bertan erre da azken zatian zentimetro bateko hautsa puntan baitauka. Hogei metro egin gabe, espaloiairen kontra plastiko gardeneko edalontzi bat dago. Bost bat metro aurrerago, espaloiairen gainean etxearen kontra litxarrerien plastikozko poltsa bat, Cheetos irakurri dudala iruditu zait. Pixka bat aurrerago espaloiairen erdian musuko urdinxka bat dago, zapalduta. Bitarte honetan, zigarrokin gehiago ere ikusi ditut espaloiairen ondoan. Ez ditut hogeita hamar metro egin eta errepidearen erdian beste musuko bat dagoela ikusi dut, hau ere urdinxka eta zapalduta. Hamar metrora plastikozko botila bat dago espaloiairen kontra, zapalduta. Honako hauxe da Sakanako herri kokkor gehienetako erdialdeko kaleetako 100 metroko zikinkeria erradiografia (Iruztun, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Altsasu...).

Beharbada, beti egon izan dira antzeratsu, baina nik azken bolada honetan gehiago erreparatu diot egoera horri. Gure herrietako kaleak zikin ikusten dira. Eta ez dut esan nahi

GURE HERRIETAKO KALEAK ZIKIN DAUDE HAINBAT HERRITARREK ZERRI MODUAN JOKATZEN DUTELAKO

udaletako arduradunek ez dutela ahaleginik egiten garbi edukitzeko. Zikin daude hainbat herritarrek zerrri moduan jokatzeko dutelako eta uste dutelako eskubidez jokatzeko dutela edozein zikinkeria kalera botata, zigarrokinak barra-barra,

edalontziak, botilak, poltsak, ...ia-ia denak plastikozkoak, ziurrenik, ibaian eta itsasoan bukatuko dutenak. Penagarria!

Alde batetik, azken urteotan hainbat konturen gainean herritarren kontzientzia handitzen ari da, esate baterako, ekologia eta espazio naturalen eta urbanoen garbitasuna zaintzeko tenorean zaborrak bilduz eta birziklatuz, baina bestetik, horrelako utzikeria eta zikinkeria ikusten da. Zalantzarik gabe, herritar gehienek arduraz eta txukun jokatzeko dute; baina, agerian dagoenez, zoritxarrez, hiritartasun heziketan hutsune handia daukagu. Kaleak zikin eta zaindu gabe egoteak oso itxura dekadentea eta tristea ematen diote herriei.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Crowdfundinga martxan!!!

NAFARROAKO TRENAREN ALDEKO PLATAFORMA (SAKANAKA)

Gaur egun planteatuta dagoen Abiadura Handiko Trenari alternatiba sozial eta inklusiboa den ikerketa finantzatzeko crowdfunding-a hurrengo asteartean, martxoaren 22an, martxan jarriko dela jakinarazi nahi dugu.

Aurrekoetan azaldu izan dugun moduan ditugun azpiegituren berregokitzapenean datza gure apustua. "Gure tren soziala" bailara zein herriak lotzeaz gain askoz merkeagoa litzake abiadura bizi bati muzin egin gabe. Alternatiba erreala bilakatzeko

berebizikoa da ikerketa serioa burutzeko sakandar guztien laguntza beharrezkoa da. Lagundu nahi duen edonork web-orri honetan parte hartu dezake: www.kukumiku.com/eu/proyectos/trenaren-aldeko-alternatiba.

Horretaz gain, gure eskualdean, trenak modu zuzenean eragina duen herrietan zenbait hitzaldi eta bilera antolatuko ditugu ikerketaren zehaztasunen berri emateko eta jendartearen ekarpenak ere proiektuan txertatzeko asmoarekin. Hurrengo asteetan, beraz, deialdiak programatuko ditugu eta

interesa duen edonori parte hartzerantz animatzen diogu. Zenbat eta jende gehiago bat egin orduan eta anitzagoa izango da.

Bestetik, hurrengo martxoaren 25ean, ostirala, 18etan Araiaiko gaztetxean tren sozialaren inguruko hitzaldia izango dela jakinarazi nahi dugu. Lautadako Araian ere alternatiba honetan inplikatuak daude erabat.


Honekin guztiarekin, denon artean beste tren eredu bat posible dela sinesten dugu eta hori ahalbidetzeko zuen laguntza eskatzen dugu.



OBJEKTIBOTIK

Saharako hauts hodeia Sakanan

Hego-ekialdeko haizeak ekarri du hautsa eta kolore gorritzaz jantzi ditu bazterrak. Atzo arratsaldean jotzen hasi zen hego ekialdeko haizeak Saharako basamortuko hauts hodei bat ekarri du berarekin. Meteorologoek gaztigatu dutenez, heldu diren bizpahiru egunetan hala segituko du. Hautsa euriarekin nahastu eta lurrera eroriko da. Ibilgailuetan, kristalean, arropan, paretetan eta bestelakoetan ikusten da hautsaren arrastoa. Aurreko aldietan baino nabarmenagoa izan da oraingo hauts "ekaitza".



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeider Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Euskara lan munduan sartzen laguntzeko tresna

Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak "Enpresetan euskara txertatzeko eskuliburua" argitaratu du, hizkuntza normalizazioa lantegien barrura ere iris dadin. "Esku hartze planifikatua eta eragile guztien parte hartzea eta elkarlana behar dira"

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Hezkuntzan, administrazioan, aisialdian eta hedabideetan, besteak beste, berarendako espazioak irabazi ditu euskarak. Baina zuloetako bat lan mundua da. "Han txikia da euskararen erabilera. Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkartearen (SDOZE) laguntzaz ibarrean merkataritzan pauso batzuk eman badira ere, lantegietan euskara sartzea gehiago kostatu da", azaldu du Izaskun Errazkin Beltza euskara teknikariak.

Erazkinek azaldu duenez, "heldu askok lantokian ematen dute beren denboraren zati handi bat. Lan mundua ez da modu naturalean euskaldunduko. Euskara lan munduan besterik gabe ez da txertatu behar. Erabaki kontzientea izan behar du. Esku hartze planifikatua eta eragile guztien parte hartzea eta elkarlana behar dira". Horregatik, bai berak baita Sakanako lan munduko eragileek ere lantokietan euskara txertatzeko pausoak emateko deia egin diete sakandarrei.

Eskuliburua

Euskara Zerbitzuak *Enpresetan euskara txertatzeko eskuliburua* argitaratu du. Gidan enpresetan



Enpresarien, mankomunitateko, ekoizleen eta garapen agentziako ordezkariak

euskararen presentzia handitzeko aholkuak eman eta baliabideak eskaintzen dira. Eskuliburu hori Sakanako enpresetara bidaliko du Euskara Zerbitzuak.

Eskuliburuak sei atal ditu. Aurrenekoan euskarak lan mundua bereganatzeren garrantziaz aritzen da. Atal horretan azaltzen denez, beste esparruetan bezala sozioekonomia arloan ere lan-keta egin behar da euskararen erabilera handitzeko. Horretarako, esku hartzea planifikatua behar da eta euskara planak dira hain zuzen bigarren atala.

"Lan mundua euskalduntzeko lehen euskara planak 90eko hamarkadan egin ziren. Azken urtetan dinamika hori ugaltu da eta zenbait enpresa aholkulari daude. Eta eskuliburuaren kontaktuak daude" azaldu du Errazkinek.

Argitalpenean ere euskara enpresan txertatzeko arrazoiak irakur daitezke, esate baterako: merkatu berriak, kalitatea, elementu bereizgarria, kohesioa, aitzindaritzak, gizartearekin bat egitea edota gizarte erantzukizuna. Laugarren atalean "egoe-

ra soziolinguistikoa edozein izanda ere" euskara enpresetan txertatzeko ahozko eta idatzizko komunikazioan har daitezkeen neurrien zerrenda egiten da. "Abiapuntuaren arabera dena ez dugu eginen, baina pausoak progresiboki emanez aurrera egin daiteke. Modu planifikatu eta eraginkorrean egiteko, lagungarria izanen da aholkularitza enpresa kontratatzea", azaldu du teknikariak.

Euskara Zerbitzuak enpresei honako laguntza eskaintzen die: Itzulpen Zerbitzua, Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntza (ostalari-tza, establezimendu komertzial eta elkarteei), euskara ikasleendako dirulaguntzak eta Dendari eta ostalariendako baliabideak (kartelak eta bestelako euskarriak...). Bestalde, eskuliburuaren bertsio digitalean Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen berri jaso dute.

Euskarabidearen laguntzak

Nafarroako Gobernuak euskararen erabilera lantoki pribatuetan sustatzeko 222.000 euroko dirulaguntza banatuko du aurturten. Aurtengo deialdia dagoeneko egin du Euskarabideak eta lau motako laguntzak banatuko ditu. Aurturten lehen euskara plana egin nahi duten enpresen artean 34.000 euro banatuko ditu. Aurretik euskara plana egin eta haren kudeaketarekin segituko duten enpresendako 166.000 euro banatuko dira. Bestetik, euskara plan bati lotu gabeko ekintza edo jarduera zehatzendako 10.000 euro daude. Eta, azkenik, 12.000 euro banatuko dira, esaterako, komunikazioaren teknologien esparruan euskara sustatzeko edota zabaltzeko webguneak eta software aplikazioak euskaraz sortzeko.

Arropa biltzeko edukiontzia iritsi dira herrietara

Altsasun abenduan jarri ondoren, gainontzeko herrietan joan den astetik daude 25 edukiontzi

SAKANA

Ibarrak 2019ko abenduan galdu zituen erabilitako arropa eta oinetakoak biltzeko 29 edukiontzia ordezkaturik daude. Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak Etxarri Aranatzeko hiru jarri zituzten asteartean eta bana Irurtzunen, Arbizun, Lizarragan, Bakaikun eta Iturmendin. Asteazkenean, berriz, Olatzagutian hiru, Irurtzunen eta Lakuntzan bina eta bana Ihabarren, Uharteko Arakilen, Urdiainen eta Ziordian. Haietara bota behar dira erabili behar ez dituzun txandak (arropa, poltsak, gerrikoak, oinetakoak eta abar) edota apurtu zaizkizunak eta egoera txarrean daudenak.

Edukiontzietan jasotakoak biltzeaz Emausko Trapuketariak arduratuko dira, Mank-ekin hitzarmena sinatu ondoren. Lehendik ere Emausko Trapuketariak Arbizuko eta Altsasuko garbiguneetatik (astegunetan 09:00-14:30era) eta Sakanako etxeetan jasotzen zituzten arropak (etxetik pasatzeko hots egin 948 464 867 telefono zenbakira).

%4-5

Gaur egun sortzen ditugun hondakinen ehuneko hori txandak dira.

22. korrika

HITZ EKIN

MATERIALA HEMEN SALGAI:

Korrika dendetan, AEKren euskaltegietan eta www.korrika.eus atarian.

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era

korrika.eus



Altasun ostiralean, Arbizon larunbatean eta Lakuntzan igandean kontzentrazioak egin zituzten.

"Landu ditugun bide guztiek ez dutelako inolako emaitzarik izan"

EIDER GARDE MAZKIARAN NAFARROA 0-3 PLATAFORMAKO KIDEA

Hezitzaileek "haur eskolen duintasunaren alde" egiten ari diren dinamikaren barruan asteburuan 18 ikastetxeetan itxialdiak eta herrietan kontzentrazioak egin zituzten

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Asteburuan ikastetxean itxialdia egin, familiak hartu eta azalpenak emateko ateak zabaldu eta Lakuntza eta Arbizuko elkarretaratzeetan parte hartu. Halako asteburuaren ondoren azalpenak eman ditu Kattuka haur eskolako hezitzaileak.

Zer da zuendako haur eskola duin bat izatea?

Hasteko, Europak ezartzen dituen haurtzaroren arretarako zerbitzuen kalitatearen inguruan hausnartzea. Momentu honetan,

gehien bat, ratioak dira gure zailtasun handienetarikoa. Europak gomendatzen dituen umeen kopuruaren bikoitzarekin ari gara lanean. Aldarri hori askotan eraman dugu Hezkuntza Departamentura, ez da ezer aldatu. Pandemiagatik ere ez diguratioak jaitziaz. Zailtasunak oso handiak dira. Langileen lan baldintzak duintzeko ere borrokan ari gara. Oso lan prekariora, feminizatua eta gutxietsia da. Daukagun ardura eta erantzukizuna ez da batere kontuan hartzen.

Bestalde, LOMLOErekin (Hezkuntza Legea) lotutako 0-6ko dekretu zirriborroarekin bi urteko umeen gelek mehatxua dugu. Departamentuak bi urteko gelen aldeko apustua egin du. Horrek, zeharka, haur eskoletan lanpostuen galera ekarriko du. **Ratioak jaisteko langile gehiago eta lan baldintzak hobetzea batetik.** Duintasunean eragiten duteratioek eta lan baldintzek. Jendeak, gutxienez, bere lana baloratua sentitzen badu, eta haurrek eskoletan dituzten bizi baldintzak hobetzen

badira, ulertzen dugu haur eskoletako duintasuna areagotu daitekeela. Eta egungo egoera, nolabait, zeharka, aldatu daitekeela. **Zer da bi urteko gelak sortzearen hori?**

Lege berriak ezartzen du erkidego bakoitzak moldatu beharko duela LOMLOEren araudia beraien araudietara. Horrek curriculum aldaketa ekarri du. Orain arte 0-3 eta 3-6 modu desberdinean arautzen ziren. Lege zirriborroan 0-6 agertzen da. Haur Hezkuntzako ziklo osoari aitortza hori egiteagatik pozik gaude. Baina curriculumak ikutzeaz aparte, zeharka, halako maltzurkeriak ditugurekiko. Hizkuntza ereduaren inguruan, kriston erasoak dator-kigu 0-3 zikloei ere. Nafarroan dugun ondare handienetarikoa da 0-3 ziklo gisa osoa mantentzen dela. Baina araudiak zikloa zatikatzeari, nolabait, atea zabaltzen zaio. Horrek haurrei bigarren zikloko ikastetxe batean egokitzeko zailtasunak ekarriko dizkie, beraien beharrak ez baitaude haur eskolan bezain ondo aseta. Hor dago gure ardura.

Hezkuntza Departamentuarekin harremanik izan duzue?

Hamabostero ari gara mobilizatzeko eta ziklo horren barruan maiatzerako mugagabeko greba dago aurreikusita. Orain arteko mobilizazioek ez dute inolako mugimendurik eragin administrazioan. Hortaz, grebara iritsi baino lehen erabaki dugu alderdi politikoak, Nafarroako Gobernua, Gimeno kontseilaria eta Hezkuntza Departamentua zundatzea. Gobernuko 0-3 zerbitzu-koekin joan den astean egon ginen: hitz hutsak eta dirurik ez dagoela. Ez dira gure aldarrikapenak kontutan hartzen ari. Gimeno jaunak ukatu egin du gure bilera eskaera. Alderdiak

orain ari dira gure bilera eskaerari erantzuten eta haiekin harremanetan gaude, berriro. Alderdiei gai honen inguruan beraien posizioa zein den azaltzea eskatu behar diegu. Greba deialdia ofizialki egin aurretik azken saiakera egiten ari gara politikoekin eta administrazioarekin. **Geroz, protesta egutegiarekin aurrera segituko duzue.**


Hori da. Alderdi politiko guztien egoitzetatik pasako den giza kate bat egingen dugu Iruñean hilaren 26an. Haien egoitzen atarrietan gure aldarrikapenak plazaratuko ditugu. 0-3 zikloaren Nafarroako egitura maltzur honetan galduta gaude, inork ez ditu ardurak hartzen. Udalek eskuak lotuta dituzte. Haur eskoletako langileak Hezkuntza Departamentuak bidaltzen dizkigun aginduei kasu egin eta hori aurrera eraman behar dugu. Baina gure zailtasunei inork ez die kasurik egiten. Atzera ere, gutxietsiak gara. Hori ikusi dugu aurten, esaterako, pandemiaren inguruko protokoloetan: 0-3rako protokoloak azkenak izan dira, beti besteen ondoren, berandu; nahiz eta zerbitzu egun gehien eskaintzen duen zikloa den.

Gaur egun mugagabeko grebaren aukera erreala da?

Bai. Jendea gero eta haserreago dago ikusten duetako landu ditugun bide guztiek ez dutelako inolako emaitzarik izan. Argi dago min egin dezakeen gauza bakarra haur eskolak ixtea dela. Nahiz eta kontziente garen zurrerik %100 gutxienezko zerbitzuak ezarriko dizkigutela. Berez, legea betetzeko, ezin da langile bat bera ere faltatu. Hor beste erronka bat etorriko da, baina argi dago grebarena. Departamentukoiei san genien.

Asteburuok indarra eman dizue?

Bai. Eta sareetan izan dugun oihartzuna ere. Gai hau plazaratu behar da, jendarteak ez du informaziorik. Horregatik izan da asteburu mobilizazioa: bakoitzak bere herrian edo auzoan plazaratu zezan egoera zein den. Harrigarria dirudien arren, familia asko asteburuan ohartu dira zein den 0-3 zikloan bizi dugun egoera latza. Udalen aldetik halako konpromisoak edo inplikazioa lortzeko helburua genuen. Edo, gutxienez, borroka honetan udalen eta familiak bidelagun izatea. Lortzen ari gara. Astelehenean familia asko eskolan galdetzen egon dira.



"HEZITZAILEEK DAUKAGUN ARDURA ETA ERANTZUKIZUNA EZ DA BATERE KONTUAN HARTZEN"

Udalaren aurrekontua 1,1 milioi hazi da

Energia aurrezpena eta energia gastuak murriztea izanen da udalaren ekonomia lehentasuna. Horretarako, argiteria publikoa guztiz berritu eta eskolaren eraikinean goitik behera energia birgaitzea egin nahi du udalak. Dirulaguntza eskaerak egin ditu

UHARTE ARAKIL

Txomin Uhartte Baleztena alkateak azaldu duenez, "pandemiagatik bideratzeko zailtasunengatik aurretik zenbait proiektu ezin burutu ibili gara. Orain heldu diegu eta proiektu horiek aurrekontuan jaso ditugu, horrela ez dugu aurrekontu aldataririk egin beharko. Ez dakit zenbaterainoko gaitasuna izanen dugun proiektuak gauzatzeko, agian zerbaitek atzeratuko da". Izan ere, "dirulaguntzak behar dira gauzak egiteko. Zain gaude. Toki Azpiegitura Plana etorriko da, esaterako" gaineratu du.

Horrek guztiak azaltzen du Uhartte Arakilgo Udalaren aurrekontuak urte batetik bestera izan duen hazkundea. 2.400.431,16 euroko diru sarrerak aurreikusitu ditu, aurreko urtean baino 1.137.011,95 euro. Eta irteerak, berriz, 2.399.933,18 euro izanen dira, 1.137.383,82 euro gehiago. Udalak aurten inbertsioetara 1.578.421,15 euro bideratuko ditu.

Bi lan

Udalak lehentasunezko jo du energia eraginkortasuna eta energiaren aurrezpenean neurriak hartzea. Horregatik, 200.000 euro baino gehiago jarriko ditu Alde Zaharreko argiteria publiko modu integrean berritu



Eskolan energia arloko eskuhartze integrala egin nahi du udalak. ARTXIBOA

eta egungo bonbillen ordez LED argiak jartzeko. Aurretik LED argiak jarriak daude Itxesi eta Bidezarren. Alkateak jakinarazi duenez, Geltoki eta Zerradoa auzoetan aldaketa egiteko lanak aurki hasiko dira.

Bestetik, "ohiko gastuetatik gora doan inbertsioa" egin nahi du udalak eskolan: "inguratzaille termikoa jarri, berogailuko termostatuak berritu, teilatua konpondu, autokontsumorako eguzki plakak jarri eta egungo berogailua biomasako bategatik aldatu nahi dugu. Lanek 850.000

euro baino gehiago balio dute. Dirulaguntza eskatuko dugu eta %80tik gora jasotzea espero dugu. Bestela udalak ez du gaitasunik halako lanekin hasteko", azaldu du Uhartek. Gaineratu duenez, "aipatutako bi lanengatik hazi da hainbeste aurrekontua".

Next Generation dirulaguntzen barruan Dus 5000 programa dago. Haren bidez erronka demografikoa duten udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu berezitarako inbertsioak egiteko laguntzak emanen dira. Eta udalak eskaera egin du.

Gehiago

Uhartte Arakilgo Udalak aurten inbertsio gehiago egiteko asmoa du. Alde batetik, autobus geltokia berreraiki nahi du, hura hobetzeko. Bestetik, "bost edo hamar urtean behin hilerria hustu eta garbitu behar izaten da eta lan horiek aurten egin nahi genituzke". Bestetik kaleak berritzeko inbertsioak egiten segituko du udalak.

Udalak herrian lana sustatzearen aldeko apustua du. "Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dutenei aukera erraztu nahi diegu: langabetuak, langabezia luze daramatenak, adin bat beteak dutenak... Baso lanekin eta herriarekin lotura duten lanak eskainiko ditugu". Urtearen arabera Uhartte Arakilgo Udalak 2, 3 edo 4 pertsona kontratatu izan du. Aurten dagoeneko 51 urte baino gehiagoko pertsona bat kontratatu du. Eta baso lanetan aritzeko urte erdiko kontratua egin nahi du ere.

Bidea

Lakuntza eta Uhartte Arakil lotzen duen Amurgingo bidea elkarrekin konpontzeko asmoa zuten bi udalek. Lakuntzako Udalak lana sustatzea eta batera ordaintzea zen bi udalen asmoa, "baina Europak ezetz esan du. Herri bakoitzak bere bide zatia konpondu behar duela", azaldu du Uhartek. "2019an eta 2020an Arruazu, Lakuntza eta Uhartte Arakilgo udalen artean itxitura bat konpondu genuen. Baina orain irizpidea aldatu da eta udal bakoitzak bere deialdia egin beharko du". Lana horrela garestiagoa izanen dela nabarmendu du alkateak. 22.000 euroko aurrekontua du lanak, eta haiek egiteko udalak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jasotzea espero du.

Gehiago



Uharteko igerilekua. ARTXIBOA

Turbina

Ganbeletako iturburutik heldu den goi hornidurako hodian argindarra sortzeko turbina jarriko da, igerilekua argindarrez hornituko da, eta sobera dagoena udalaren kontsumorako izanen da.



Uhartte Aralartik. ARTXIBOA

Zaharberritze gune

Izendapena lortu nahi du udalak, herritarrek dirulaguntzak tramitatzeko erraztasunak izateko. Zaharberritzea eta energia birgaitzea sustatzeko ordenantza egiten ari da.



martxoak 10 - 30

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Oinak lurrean



Bete ezazu despentsa urte guztirako

Eskatu Nafarroa hegoaldeko olibo-olio birjina estrea, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus



Kamioiak gelditu Altsasuko aparkalekuan.

Kamioilariak lan baldintza duinak eskatzen

Garraioaren Defentsarako Plataformak deitutako lanuzte mugagabea babestu dute Hiruk eta Tradisnak

SAKANA

Astelehenaz geroztik sektorean baldintza duinak aldarrikatzeko eta neurri zehatzak eskatzen ari dira. Protestaren sua piztu duena erregaiaren prezioaren garestitzea izan da. Espainiako Gobernuak jakinarazi du hilabetearen akaberan jaitsiko dituela prezioak. Baina garraiolariak horretaz aparte ezinbesteko jotzen dute garraioaren tarifak gasolioaren prezioaren igoeraren arabera berrikustea, "gutxienez hamabost egunean edo hilabetean behin behintzat". Tarifaren berrikuspena beraien gastu guztien gehikuntzaren arabera izan beharko lukeela uste dute. Horregatik, hainbat kamioilari bezalako tarifaren berrikuspena eskatu diete egunotan.

Baina sektoreko profesionalak beste hainbat aldarrikapen dituzte, beraien lana duina izateko. Batetik, exijitu dute inork ez dezala kostuen azpitik lan egin. Horretarako, azpikontratazioak baztertu eta lanerako gutxieneko tarifa ezartzearen alde agertu dira. Horrekin batera, lan baldintzak duintzeko garraioan dauden jokabide makurren kontrola eskatu dute, besteak beste posta enpresa, kooperatiba faltsu eta azpikontratazioa. Horiek kontrolatu eta behatu beharria ezinbestekoa dela jo dute.

Beste aldarrikapen batzuk

Protesta egiten ari diren kamioilarien iritziz administrazioak bertako garraiolariak eta en-

presak babestu beharko lituzke: "bertako enpresei zerbitzua emango dien sarea zaindu". Erregai garesti dago, baina hura ordaintzeko dirurik ez izatea ere arazoa izan daiteke egindako lanagatik garaiz kobratzen ez bada. Horregatik protestan daudenek eskatu dute pausoak eman daitezkeen ordainketak hilabete baino gehiago atzeratu ez daitezkeen.

Garraioari jartzen zaizkien bidesariekin ere kexu daude garraiolariak. Haien iritziz horiek kendu beharko lirakeke, eta errepideen konponketa publikoa izatea aldarrikatu dute. Erretiroaren inguruko eskaerak ere baditu sektoreak. Batetik, erretiratzeko adina 60 urtetan izan dadin laguntzak izatea. Bestetik, gaixotasun profesionalak dituzten garraiolariak jubilatzeko aukera handitzea eta, horrekin batera, lanbidean hasi nahi dutenendako Lanbide Heziketa abian jartzea ere eskatu dute.

Ondorioak

Erregaiaren neurrigabeko garestitzearen kontra protesta egiteko garraiolariak egiten ari diren mugagabeko grebaren eragina egunak pasa hala nabaritzen hasi da. Esne-industriaren federazioak iragarri zuen bere jardura atzo eten zuela. MercaIruñera ere hegoaldeko kamioi gutxiago iritsi dira eta beraz barazki eta fruita gutxiago dituzte banatzeko. Eta arrain kopuruak ere behera egin zuela sumatu zuten banaketa puntuan.



Sunsundeguko langileek lantokian egindako protesta batean. ARTXIBOA

Sunsundeguirako plan bideragarria eskatu dute

CCOOk eta ELAk zuzendaritzari kudeaketa kaskarra egitea aurpegiaratu diote, eta langileak hilabete akaberara ez direla iristen adierazi dute. LABi eta UGTri egoerari aurre egiteko eta plantilla defendatzeko erakutsi duten pasibotasuna egotzi diete

ALTSASU

Sunsundeguko CCOO eta ELA (bina delegatu dituzte enpresa batzordean) sindikatuak ordezkariek enpresarendako etorkizuneko plan bat eskatu dute: "fabrikako enplegua ziurtatuko duena eta langileen erosteko ahalmena berreskuratuko duena". Sindikatuak azaldu dutenez, "egoera jasanezina" da, eta "fabrikaren bideragarritasuna eta enplegua bermatzeko, erosteko ahalmena berreskuratze eta Nafarroako gizarteak enpresa horren problematika ezagut dezan mobilizatu egingen gara; izan ere, enpresa irekita dago, gehiago jasaten ez duen plantillaren ahaleginari esker".

Bi sindikatuak ordezkariek enpresaren zuzendaritzatik langileei ezarritako prekarietatea salatzen dute: "soldata jaitsierak onartzeko, produkzio prima ezabatze eta soldata izoztea onartzeko zuzendaritzaren mehatxuak eta derrigorrezkoak". Gaineratu dutenez, "zuzendaritzaren

itxiera eta kaleratze alternatibaren aurrean horiek eta beste akordio batzuk onartzera behartu gaituzte".

Kudeaketaz

CCOOk eta ELAk salatu dute Sunsundeguko egungo zuzendaritzaren kudeaketa "oso txarra" dela: "laguntza publikoek baliatzen da, lanpostuak ziurtatuko dituen bideragarritasun planik mahai gainean jarri gabe". Bi sindikatuak gaztigitu dutenez, "enpresaren produktibitatea txikitzen ari da eta ia merkatu nazional osoa galtzen ari da". Eta adibidetarako 2019 urtea jarri dute: "ekoizpen markak hautsi ziren 450 autobus baino gehiagorekin, eta, hala ere, enpresak

**ENPLEGUA ZIURTATU
ETA LANGILEEN
EROSTEKO AHALMENA
BERRESKURATZEA
NAHI DUTE**

galerak izan zituen. Iraun zuen Sodenaren eta hainbat bankuren mailegari esker".

Gogorarazi dute Sunsundeguko langileek soldata 2024ra arte izoztuta dituztela, "baina Kontsumo Prezioen Indizea handituta, Sunsundeguko langileak ez dira hilaren akaberara iristen". CCOOk eta ELAk salatu dute enpresa irekita mantentzeko ahalegin guztiak plantillak egin dituela, eta zuzendaritzak, berriz, "diru publikoa jasotzen du eta 4,5 milioi eurorainoko galerak dituela, Nafarroako Gobernuak ezer egiten ez duen bitartean".

CCOOk eta ELAk enpresa batzordean gehiengo duten UGTri eta LABi "egoera horri aurre egiteko eta plantilla defendatzeko ezer ez egitea, pasibotasuna" leporatu diete. Gaineratu dutenez, "soldaten izoztea onartzen dute, ordainik gabe eta berreskuratze aukerarik gabe, nahiz eta langileak hilaren akaberara iristen ez direla ikusi".



Bonbilla zuen farola bat, antza, "sufritzen". ARTXIBOA

LED argiek argiztatuko dute herria

Argiteria publikoko bonbillen ordeztu haiek jartzeko bigarren faseko lanak eman berri ditu udalak eta aurki hasik dira lanean. 355.381 euroko inbertsioa da, baina udalak erdia ordaindu du, bestea dirulaguntza bidez pagatuko baita

ALTSASU

Argindar kontsumoa murriztu eta aldi berean elektrizitate faktura txikitzeko, Altsasuko Udalak argiteria publiko bonbillak LED argiengatik ordezkatzeko lanak eman berri ditu. Telman, Pipaón eta Montajes Eléctricos Noi enpresek osatutako aldi baterako enpresen elkarteak eskuratu du eta haiengatik 355.381 euro jasoko dute. Udalak Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren %50eko dirulaguntza du. Haien egitekoa 663 argi honako kaleetan jartzea izanen da: Zelai, San Juan, Gartzia Ximenez, Alzania, Erkuden, Kale Txiki, Nafarroa, Araba, Burunda, Zelandi, Zelai Txiki, Intxaurren, Egubera, Intxostia zeharbidea, San Pedro taldea, Frontoia zeharbidea, San Pedro taldea, Baratzako Bide eta Iortia plaza, baita Bake eta Erkuden kaleko zati bana ere.

Herriaren gainontzeko kale eta plazetan LED argiak jarrita daude. Izan ere, lan horien aurreneko fasea 2019an egin zen.

Gainera, Zumalakarregi plazako eta Isidoro Melero eta Ermita kaleetako lanak baliatu ziren LED argiak jartzeko. Joan den urtean 86.735 euro ordaindu zituen argiteria publikoaren kontsumoagatik. Lanak despedituta kopurua jaitsi egingen da.

Dirulaguntzak

Altsasuko Udalaak irabazi asmorik gabeko erakundeendako joan den urteko laguntzak (6.200 euro) banatu ditu: Biak Bat Elkartearen adingabeendako aisialdi inklusiboko programa baterako 1.550 euro; Nafarroako Esklerosi Multiplearen Elkartearendako 1.694,19 euro; Zaporeak 1.505,81 euro jaso ditu, Lesbosen (Grezia) errefuxiatuei elikadura duina

UDALAK 86.735 EUROKO FAKTURA ORDAINDU ZUEN ARGITERIA PUBLIKOKO KONTSUMOAGATIK

eta osasungarria emateko eta, azkenik, Asornak, Nafarroako Pertsona Gorren Elkartearendako 1.550 euro dira, komunikazio bitartekotzako zerbitzurako.

Aldi berean, garapenerako lankidetzako hiru proiekturako laguntzak eman ditu udalak: Rode fundazioarendako 1.000 euro Boli Kostako herrirka bat oinarritzko azpiegituz hornitzeko; El Salvador Elkartasunari 1.000 euro Cinquerako ikasleei bekak emateko eta RSADen Lagunen Elkartearendako 2.000 euro dira, zentro pedagogiko bateko materialerako.

Ibarrea

Industrialdeko hondakin urak jasotzeko sareko hirugarren eta azken faseko lanak hilaren aurreneko astean despeditu ziren. Udalak lanak baliatu ditu Ibarrea industrialdeko ur beltzak jasotzeaz aparte, Ibarresu eta Errotaxiki etxeetakoak jasotzeko. Sare berria Geltoki auzoko hodi nagusiarekin bat egin du.

Basoixiren itxuraldaketa lanak egingen dira

Baso aprobetxamendua despedituta, bertako haritzak, lizarrak, ezkiak eta urkiak landatuko dira

ALTSASU

Despeditzeaz da agorrilean Basoixin hasi zen baso aprobetxamendua. 2020-2021 aldirako Biurteko Aprobetxamendu Planaren lehenengo fasean jasotako zuhaitz mozketak izan da egin dena. Haritz amerikarrak atera dituzte handik 2012ko Mendi Komunalak Antolatze Proiektuaren bigarren berrikuspenari segituz. Hau da, "aprobetxamendu horrek baso eta teknologia-irizpideei erantzuten die". Mozketak zuhaitzak duela 40 urte baino gehiago landatu ziren. Udalak azaldu duenez, "onddoek sortutako tinta gaitzak jota zeuden (zainak ustelduta) eta sikatzten eta erortzen ari ziren. Egun haizetsuetan hori arrisku handikoa da, inguru horretan jende asko pasean ibili edota kirola egiten baitu".

Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, "duela 40 urte baino gehiago han egindako landaketek ekoizpen irizpideak zituzten, baso aprobetxamendurako orientazio eta bokazio argiarekin". Orain Basoixiko basoan birsortze naturalerako erabiliko irizpidea erabiliko da, duela 40 urte erabilitakoaren desberdina izanen da. Altsasuko Udalak argitu duenez, "lehentasuna emanen zaio inguru horretako aisialdirako erabilerrari". Izan ere, herritik gertu dagoen baso zatia izanik, Mendi Komunala Antolatze Planaren bigarren berrikuspenak eremu hori aisialdirako eremu natural izendatzea du helburu.

Aurreikusitakoa

Mozketaren ondoren haritz amerikarra modu naturalean birsortu den tokitan, kopuru eta itxurari dagokionez garrantzitsua denean, haren birsorkuntza naturala utziko da. Zuhaitz horiek handitzen direnean etxerako egurretarako banatuko direla aurreratu du Altsasuko Udalak. Basoixin badira beste toki batzuk zeinetan haritz amerikarraren landarea bertako haritzarenarekin bizi den. Halako tokietan bertako haritzari lehentasuna emanen dio Altsasuko Udalak eta, horretarako, besteak beste, bertako haritz landaketak eta mantentze lanak egingen dituela jakinarazi du. Izan ere, "haritz amerikarrak herrialdekoari kompetentzia handia egiten dio, amerikarra espezie inbaditzaile gisa jokatzeko baitu". Jokabide horien ezaugarriak dira: "bere hazkunde abiadura handiagoa da eta, haritz autoktonoari behar dituen argia eta mantenuaikiak kentzeko gai da. Hori dela eta, ainbat jarduerak egitera behar-tuko du".

Bertako haritzak toki horietan galdutako espazioa berreskuratzeko jarduerak horiek "ekosistemarendako eta bertako biodibertsitateari eusteko ezinbestekoa dira". Aurten eta heldu den urtean egingen dira bertako haritzaren landaketak Basoixin eta Balankalekun. Haiekin batera otsalizar, basagurbe, lizar, ezki eta urki batzuk ere landatuko dira.

kaxeta
LIBURUONDENA

Inprimagailuetarako kartutxoak

fotokopia@kaxeta.net
628 542 579 | 948 460 477

xapatero
taberna

Etxeo kroketak eta bokatak

948 460 162 · Etxarri Aranatz

Rubenen bigarren auzipetzea salatu du gazte asanbladak

Arbizuarrari epaitegian bigarren akusazio bat zabaldu diote: kuartel baten kontrako atentatuan parte hartzea

ARBIZU

ETAren hainbat atentaturen egiletza argitzeko hainbat auzi zabalik daude Espainiako Auzitegi Nazionalean. Juan Carlos Beiro guardia civila hil eta beste lau agente zauritu zituen ETAren 2002ko irailaren 4eko atentatuagatik auzibidea zabaldu zieten joan den urtean Jon Lizarribar, Itxaso Zaldua, Mikel Karrera Sarobe eta Ruben Gelbenzu Gonzalez arbizuarrari. Arbizuko Gazte Asanbladak (AGA) jakinarazi duenez, lauei orain ETAk Guardia Civilaren kuartel baten kontra egindako atentatuan parte hartzea leporatu diete eta auzibidea zabaldu horregatik.

AGAk kideen iritzi, "erreprezio kasu horrek agerian uzte du Espainiar eta Frantziar Estatuaren izaera zapaltzailea. Urteetan zehar kapitalismoa irauli eta independentzia eta sozialismoaren aldeko borrokan ibilitakoen kontrako mendekugosea dago erreprezio kasu horren atzean". Gazte erakundeak gaineratu dutenez, "Estatuak eta hura kontrolatzen duen burgesiak horretarako erabiltzen ditu erreprezio indarrak, atzo eta gaurko militanteak zigortu

eta biharkoak beldurtzeko, ezin duelako onartu sistema kapitalista kolokan jarri duen edo dezakeen inor". Auziperatuei elkartasuna adierazteaz gain, AGAk "bi auzibideak bertan behera gelditzea eta Euskal Herria bakan uztea" exijitu du.

Gazte erakundeko kideek azaldu dutenez diru asko behar da "erreprezio erasoaz babesteko. Militantea eta bere ingurua ekonomikoki itotzeko diseinatuta dago". Rubenek kontuak blokeatuta dituela eta aurreko akusazioari aurre egiteko 8.000 euro baino gehiago ordaindu behar dituela jakinarazi dute AGAtik. "Horri aurre egiteko elkartasuna beharrezkoa da" eta, horregatik, AGAk *Erreprezioari stop! Elkartasuna Rubenekin!* leloa duen egitaraua prestatu du gaurko. Hasteko eta behin, Arbizuko eta Andoingo pilotarien arteko pilota partida jokatu da kiroldegian 18:00etan. Ondoren, 20:00etan, Arbizuko plazan *Erreprezioari stop! Elkartasuna Rubenekin!* kontzentrazioa eginen dute. Eta bukatzeko, 22:00etatik aurrera Bake Faltsua, Boot Boy eta Igitai taldeek kontzertuak eskainiko dituzte.

DUELA 25 URTE...



10. Korrika Sakanan

Euskararen aldeko lasterketaren hamargarren edizioak aurrenekoaren ibilbidea osatu zuen martxoaren 14tik 23ra, Arantzazu eta Bilbo artean ibili zen lekukoa. Ordukoak Euskal Herria Korrika! leloa zuen. Euskararen aldeko lasterketako lekukoa martxoaren 17ko gauean iritsi zen Ziordira, eta 18an Irurtzundik alde egin zuen. Ohikoa denez, Korrikarekin batera hainbat herritan ekitaldiak egin ziren, tartean, Oskorri, Kukubiltxo eta Kepa Junkeraren emanaldia Altsasun.

"Hezkuntzan sekulako indarra egiten ari dira"

NAHIA MIGUEL ETA TASIO MERCHAR IKASLE ABERTZALEAK-EKO KIDEAK

Hezkuntza arlora heldu diren aldaketekin ados ez, eta Ikasle Abertzaleak-ek, "Hezkuntza erreformak gelditu!" lelopean, ikasleak grebara deitu ditu ostegunean

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Hezkuntzara hiru erreforma heldu dira eta haien kontra protesta egiteko Ikasle Abertzaleak-ek greba deitu du osteguneko. Iruñeko Antoniuttitik 12:00etan manifestazioa aterako da.

Hezkuntza arloko erreformekin ez zaudete ados?

Tasio. Ez. Testuingurua honakoa da: 2008tik burgesia ekoizpen zikloaren krisitik ateratzeko ezgai ikusten da. Gizartearen edo kapitalismoaren berrantolaketa bat gauzatzen ari da. Berrantolaketa hori gizartean, ekonomian eta abarretan ematen ari da. Azken finean, ekoizpen ziklo eraginkor bat aurrera atera ahal izateko, eta burgesiaren terminoetan, ekoizpen baliabide egokiak izateko. Hezkuntzan sekulako indarra egiten ari dira. Hain zuzen ere burgesiaren ekoizpen ziklo berriaren beharrak asetzeko zenbait neurri aplikatzen ari dira. Hiru erreformak adierazleak dira, baina hori prozesu bat da: autoritarismoaren gorakada, enpresarien esku hartze hori esponentzialki ematen ari da, pitteka-pitteka... Legeak horiek paperean jartzera heldu dira.

Banaka joanen gara. LOMLOE. DBH eta Batxilergoari eraginen lioke. Zer ekartzen du?

Nahia. Hezkuntzaren kalitatean finkatu beharrean, ekoizpen prozesura egokituko den hezkuntza bat, horri begira eginen diren erreformak dira. Esaterako, oso bortizki eman den digitalizazio prozesua. Ia egun batek bestera DBH eta Batxilergoko maila guztietan derrigortua izan da Cromebook-a, hau da, ordenagailu txiki batzuk. Eta ebaluazio sisteman Cromebook-a eta Classroom plataformak (Google-ren hezkuntzarako zerbitzua) beharrezkoak dira notaren zati bat eskuratzeko. Heldu den ekoizpen zikloa teknologikoa izanen



Nahia Miguel Goikoetxea eta Tasio Merchar Fernandez.

"HEZKUNTZA EKOIZPEN PROZESURA EGOKITZEKO EGITEN ARI DIRA ERREFORMAK"

da. Enpresariak sekulako apustua egin dute ikasleak heldu den lan mundura egokitzeko. Horretaz aparte, autoritarismoaren gorakada ere nabarmena da, ikastetxeetan COVID-19aren garaian hasi zena, ikasleen ia askatasun politiko guztiak mugatuz. Erreformek hori legezkatzen dute. Esaterako, unibertsitateetako Bizikidetzak Legeak askatasun politikoak mugatu eta legez kanpo sartu daitezke. Horregatik, militanteak edo politika egiten duten pertsona edo ikasle askok isunak jaso ditzakete eta erreprezioa jasan dezakete legearen barruan.

Lanbide Heziketako plan berriak zer aldaketa ekarriko lituzke?

T. Dualaren normalizazioa eta indartzea paperera ekarri nahi dute. Ikasleen doako praktikak finkatu nahi dituzte. Hori guztia, jakina, enpresarien lan indar

merke edo doako hori areagotu ahal izateko.

Unibertsitatera ere aldaketak omen datoz.

T. Elkarbizitza Lege hori askatasun politikoen ezabapen bidean politika egitea are eta deslegitimatua egoteko baldintzak jartzen ditu. Besteetan bezala, enpresarien esku hartze argia ikusten da. Gizarte zientzietako graduen edukien hustuketa dago, eta garrantzia falta. Kontrara, aipatu dugun ekoizpen ziklo berri horri lagunduko dioten zenbait gradu, batez ere, informatika, digitalizazioarekin eta, orain COVID-19agatik, medikuntzarekin lotutakoak indartu egiten dira. Tasak pitteka-pitteka igotzen ari dira. Azkenean, egoera zaurgarrian Lanbide Heziketan, Unibertsitatean eta Bigarren Hezkuntzan.

Nolakoa izan beharko luke Hezkuntzak?

N. Hezkuntza gizartearen hanka bat da. Guk politika sozialistak aldarrikatzen ditugu. Dagokiguna Hezkuntza kapitalista hau, lege erreforma kapitalista horiek kritikatzeko da. Eta ikasleak antolatzea, ikasleak kalera ateratzea.

Urbanizazio lanak aurrera doaz Uriz kalean

Perpendikularki hegoalderantz ateratzen den kale berriko lanak aurreratuta daude

LAKUNTZA

Construcciones Valeriano Santesteban enpresako langileak hilaren lehen hasi ziren Uriz kalean lanean. Hiru hilabeteko epea dute aurreikusitako urbanizazioa egiteko. Kale berriak 60 bat metroko luzera izanen du, ibilgailuak aparkatzeko 22 plaza izanen dira eta Uriz kaleko bidegurutzearen mendebaldean berdegune txiki bat izanen du. Lanak despeditu ondoren, 218.000 euro (BEZ barne) jasoko ditu enpresak.

Kalean bost partzela eraikigarri daude. Haietako hiru udalarenak dira (1, 3 eta 5 zenbakidunak). Lakuntzako Udalak bere bi partzela (1 eta 3 zenbakidunak) enkante bidez saltzeko deialdia egin zuen. Hegoaldean dagoen partzela handiena (3 zenbakia duena eta 330,02 metro karratu azalera) 80.000 eurotan (BEZ barne) saldu zuen Lakuntzako Udalak. Erosleek lau urte izanen dituzte etxeak jasotzeko eskakarak udalarekin aurkezteko. Baldintza horrekin Lakuntzako Udalak nahi du partzelekin ez espekulatzea eta etxebizitzetara bideratzea.

Beste partzelarengatik (1 zenbakiduna eta 285,45 metro ka-



Langileak Uriz kalean lanean.

rratu azalera) udalak ez zuen eskaintzarik jaso. Urbanizazioko beste bi partzelak jabetza pribatukoak dira. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza alkateak azaldu duenez, "dagoeneko bi etxe egiteko proiektuak daude". Hirigintza garapen horretan dagoen partzela handiena (5 zenbakia duena) udalarena da. Razkinek azaldu duenez, "ez dakigu zer egingen dugun oraindik. Zahar etxe bat, eguneko zentroa edo etxebizitzak egin daitezke. Baina, momentuz, dagoen bezala geldituko da".



Eskola gorriz jantzita

Otsailaren 18z geroztik Construcciones Leache enpresako kisugileak Bakaikuko eskola zeneko teilatua berritzen ari dira. Egitekoak despeditzeko hiru hilabete dituzte. Lanek 72.000 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dute eta haiek ordaintzeko Bakaikuko

Udalak Nafarroako Gobernuaren 54.933,11 euroko dirulaguntza jaso du. Ez da egun hauetan herrian izan den lan bakarra. Izan ere, Sakanako Mankomunitateko Ur Zerbitzuak ur hodia berritzeko lanak egin baititu Bideberrialde kalean, frontoi ondoan.

Estalpea, festetarako ez

Arbizuko Udalak estalpeko eraikitze lanen deialdia egin du. Enpresek proposamenak apirilaren 7rako aurkeztu beharko dituzte. Lana hartzen duen enpresak estalpea garila hasiera eta iraila akabera artean eraiki beharko du. Lanen truke 123.412,48 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Udalak jakinarazi duenez, lanak egiteko dirulaguntza jasoko du.



ARTXIBOA

Gasoleo A ibilgailuentzat
Gasoleo B nekazaritzarako
eta kalefakziorako

www.iparoil.com



IPAR OIL

GASOLEO BANAKETA

Sakanako bailara

Tel. 620 143430

Langraiz Oka

Los Llanos industriagunea
01230 Langraiz Oka (Araba)
945 371358 • 648 250975

Santurtzi

Aparkabisa industriagunea
48980 Santurtzi (Bizkaia)
945 371358 • 686 525761

Urnieta

Erratzu industriagunea - 201
20130 Urnieta (Gipuzkoa)
943 330311 • 646 716256



Vicenta Zubiria eta Rosario Larumbe. ARAKILGO UDALA

Arakilek bi emakumezko omendu ditu

Vicenta Zubiriak eta Rosario Larumbek jaso zuten aitortza, Emakumeen Eguna kontura antolatutako ekitaldian. Arakilgo emakumezkoak elkartzeko taldea sortu da. Hurrengo hitzordua Etxarrengo elkartearen da, apirilaren 6an, 18:00etan

ETXARREN

Ibarreko estreinako Emakumeen Eguna hartu zuen Etxarrengo Iratzar jatetxeak larunbatean. Adin guztietako 30 emakumezko elkartu ziren. Ondoren, Irantzu Escudero Jaka zinegotziak egunaren zergatia azaldu eta emakumezkoen bazkari bat Arakilen egiten den lehen aldia izan zela nabarmendu zuen. Ekitaldian Celia Albisuk eta Izaskun Mujikak Joana Zigandaren bertso bat irakurri zieten omenduei: Vicenta Zubiria (Zuhatsu, 91 urte) eta Rosario Larumbe (Izurdiaga, 86 urte). Testuaren kopia eta arrosa gorri bana jaso eta esker ona azaldu zuten. Udalaren asmoa 85 urtetik gorako emakumezko arakildarrak omentzea zen. Guztira 23 dira Arakilen daudenak, baina hainbat arrazoiengatik larunbatean ezin izan zuten ekitaldira joan. Horregatik, Arakilgo Udalak hurrengo egunetan etxera bidaliko die oparia.

Omenaldiak musikari utzi zion txanda. Udaleko gizarte

eta kultura dinamizatzaile Garbiñe Olazar Bazterrikak kantu bat eta Izurdiagako Cristina Osetek pare bat abestu zituzten. Eguna despeditzeko, Lorena Arangoak ikuskizuna eskaini zuen. Lau emakumezko protagonistaren inguruan ardatzuzen emanaldia. "Urteetan entzundako istorioetan gizonen baten menpe edo gehigarri jo ditugun emakume horiek bizi-pen eta garaipen pertsonalak dituzte. Eta horregatik gogoratu beharko genituzke, ez euren senarrek egin edota esan dutenarengatik baizik". Etxarrengoen bildutakoek Mari Domingik, Mona Lisak, Constanzak eta Julietak bizi izandakoak entzuteko aukera izan zuten. Barrea

EMAKUME TALDE BAT OSATU NAHI DUTE URTEAN ZEHAR ELKARTZEKO, JAKINTZA TRUKATZEKO

aurpegiaren zutela atera ziren guztiak jatetxetik.

Jatorria, eta hitzordua

Arakilgo Emakumeen Eguna udalak garatutako parte hartze prozesu baten ondorio izan da. Emaitzen artean emakumezkoak elkartzeko eta elkarbanatzeko leku fisiko eza aipatu zuten askok. Horretan sakontzea ezinbestezat jo zuen udalak. "Azaroaren 25erako emakume mugimendua martxan jartzea zen helburu, baina ez bakarrik egun puntaletan elkartu eta aldarrikapenak egiteko, baizik eta emakume talde bat osatu eta urtean zehar elkartzeko espazioak bilatzeko, jakintzak trukatzeko, ... sare sendo bat sortuz", azaldu dute udaletik. Hala, Satrustegin kafea hartzeko hitzordua jarri zuten otsailen. "Arrakasta handiko solasaldia izan zen eta ideia eta desio ugari jorratu genituen, tartean larunbatekoa". Hurrena Etxarrengo elkartearen izan den apirilaren 6an, 18:00tan.

Foru Hobekuntzari buruzko dokumentala

Legea onartu zela 40 urte pasa direnean, garaiko negoziazioen berri eman nahi du

SAKANA

Nafarren artean autogobernua inguruko eztabaida sustatu eta zabaltzeko helburuz aurkeztu zuen bere burua Nafarroa XXI herri ekimenak lastailean. Ekimeneko kideek azaldu dutenez, "gaur gaurkoz inork ez du zalantzan jartzen, ez herritarrok eta ez ordezkari politikok, eztabaida urgentea eta beharrezkoa denik". Herri ekimenak Foru Hobekuntzari buruzko "egiazko eztabaida sozial eta herritarra sustatu" asmoz, "herri kontakizunaren ahotsa ikusarazi nahi dugu". Horregatik, Joko zikina, 40 urteko iruzurra eta usurpazioa Nafarroako Foruaren Hobekuntzan izenburuko dokumentala prestatu du, gaurtik aurrera Nafarroako 77 herri eta auzotan proiektatuko dena (Sakanako 11 herritan, emanaldiak euskaraz izanen dira).

Herri ekimeneko kideek nabarmendu dutenez, "Konstituzio Auzitegiak helegitea jarritako 17 legeak, lan erreforma errefusatzeak, pentsioenak, LOMCE hezkuntza legearenak, moztal legearen aurka parlamentuak adierazitako arbuioak... kili kolo uzten dute nafar autogobernua 40 urteren ondoren". Nafarroa XXIeko kideen iritziz, "egunak joan eta egunak etorri, Foru Hobekuntza berez ordezkatu behar lukeen jendartetik geroz eta urrutiago dago. Jendarteak eta Parlamentuak adierazi dituen askatasun eta eskubideen handiagotze nahiarentzako kortse batean bilakatu da".

Dokumentala ibarreko 11 herritan emanen dute. Gaur Irurtzumen eta Uharte Arakilen. Bihar Etxarri Aranatzen. Asteazkenean Altsasun izanen da ikusgai. Ostegunean, berriz, Iturmendi, Olatzagutia, Ziordian. Eta heldu den ostiralean Ihabar, Arbizu, Bakaiku Urdiainen izanen da emanaldia.



Aralarko santutegian San Jose eguna ospatuko da

Egutegian festa egun bezala gorri seinalatuta egon ez arren, Aralarko santutegiak San Jose egunaren ospakizuna hartuko du larunbatean, martxoak 19. Deun Mikel Goiangeruaren kofradiak jakinarazi duenez, eliza erromanikoak meza nagusia hartuko du 12:30ean. Mezara joaten direnek ez dute elizkizunaren akaberan Aralarko aingeruaren irudia gurtzeko aukerarik izanen, orduerako Lakuntzan izanen baita. Izan ere, Aste Santu ondoren herriz herri ibiltzen da Aingeruaren irudia. Baina guztietara ez denez iristen, Aste Santua baino hamabost egun lehenago hainbat herritatik pasatzen da. Urteroko ibilbidea, ohi bezala, Lakuntzan hasiko du larunbatean. Eta igandean aingerua Arruazun izanen da.

Bestalde, kofradiak bere urteroko batzarra garagartzaroaren 26rako iragarri du. Haien nahia da batzarra Lakuntzetxe berri-tuan egitea. Lanak oso aurrerata daude.

Udaberria eta San Benito, Bakaikun biak batera

Hainbat bakaikuarrek herria eta San Benito arteko 600 metro inguruko bidea eginen dute astelehenean. Bakaiku hego mendebaldera, barga ondoko ermitak egun horretan zabalduko ditu ateak titularraren omenezko elizkizuna hartzeko. 17:00etako mezaren ondoren, ohi denez, apaiza eraikinetik atera eta herriko soroak bedeinkatuko ditu, "fruitua eman dezaten". Garai batean, santuari osasuna eta apetitua eskatzeko, bakaikuarrek etxeko lurrezko lapiko zaharrak eramaten zituzten erromeriara eta ermitaren kontra botatze zituzten "San Benito buen apetito. Eltzeak hautsi eta biok itto" esanez.



Ukrainako pasaportea bidairako motxila baten gainean. UTZITAKOIA

Ukrainarrak gure artean dira

Herrialdea utzi, kontinentea zeharkatu eta astelehenean iritsi ziren Altsasura aurreneko Ukrainako errefuxiatuak. 61 izan ziren, baina haietako batzuk beste bizitokiak opatu eta atzo 43 zeuden. Otadia aterpean 81 pertsona hartuko dituzte

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Errusiako armadako tropak Ukrainan sartu eta gerra piztu zenetik hiru aste bete dira. Gerrak hildakoak, zaurituak eta ukrainar errefuxiatuak utzi ditu. Horiek Europan barna babesa bilatu dute. Eta horietako batzuk Altsasuko Otadia aterpetxean opatu dute babesa. Astelehen eguerdian iritsi ziren Ukrainatik aurreneko 61 pertsona aterpera, 32 haur, 26 emakumezko eta 3 gizonezko. Atzo aterpean zeudenak 43 ziren, beste 18ak beraien kontaktuen bidez beste etxe batzuetan babesa lortu baitzuten. Aterpeak berez 72 plaza baditu ere, 81 pertsonarendako tokia egokitu dute eta hurrengo egunetan Altsasura beste 38 ukrainar etorriko dira.

Ukrainatik Altsasura etorritako pertsonen arreta eskaintzeaz Gurutze Gorria arduratzen ari

da. Haiekin egiteko bost pertsona (gizarte langile eta hezitzaileak) kontratatuko ditu erakundeak. Horretarako, Nazioarteko Babes Programan jasotakoa betetzen ari da. Horren arabera, errefuxiatuei lehen harrera egin

eta behar duten pertsonen bizitoki baliabideetan ostatua ematen diete, Altsasun, aterpean. Ondoren, lege eta osasun arloko aholkularitza heldu da. Batetik, aterpean biziko diren errefuxiatuak Altsasun erroldatuko dira.

BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

FLORÉS

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.

Bestetik, poliziaren aurrean beraien egoera legeztatuko dute. 18 hilabeteko baimen bat jasoko dute, beste sei hilabeterako luzatu daitekeena. 24 hilabete gutzira. Bi urte horiek pasako balira, errefuxiatuak autonomia fasera pasako lirake eta etxea eta lana bilatu beharko lituzkete. Programaren barruan, Gurutze Gorriak gaztelaniari eta gizarte trebetasunei buruzko prestakuntza emanen die errefuxiatuei. Legezko estatusa jaso ondoren enplegarritasunean eta lan gaitasunetan duten prestakuntza lagunduko diete.

Bestalde, osasun arloko betebeharrak dagoeneko bideratuta daude. Errefuxiatuak Mutiloako Forem egoitzara eramaten dituzte eta lehen balorazioa egin, tratamenduak behar dutenei hura nola egin zehaztu eta txertoen jarraipena egiteko. Norbanako osasun txartela ere egingen diete.

Koordinazio mahaia

Bakarrik etorri ziren adingabe atzerritarrekin ez bezala, ukrainar errefuxiatuen etorrerarekin lehen uneen sortu da koordinazio mahaia. Bertan daude gobernuko Migratzaileak Hartzeko eta Laguntzeko Karibu Zerbitzua, Gurutze Gorria, Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua, Burunda mendebaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Altsasuko Udala. Atzo egin zuten estreinako

bilera eta hurrena apirilaren 7rako jarri dute. Hilean behin biltzeko asmoa dute.

Anitzartean eta gizarte zerbitzuetako teknikariek azaldu dutenez, "Espainiako Gobernuak krisiak zazpi hilabete iraunen duela aurreikusten du". Gaineratu dutenez, "errefuxiatuek Madrildik behar guztiak aseta dituzte: jana, esku dirua, farmazia eta arropa". Teknikariek argitu dutenez, gobernuak aterpea betetzeko zain dago jakiteko zenbat haur eta gazte ikasle dauden. Atzo 18 ziren. "Guztien egoerak aztertuko dituzte eta horren arabera eskolatze prozesuari ekinen diote. Izan ere, ume batzuk on-line ikasketarekin segitzen dute. Besteak herriko ikastetxeetan banatuko lirake". Kontuan hartzeko faktoreak dira udaberriko oporren ondoren kurtso bukaera despeditzeko bi hilabete faltako direla. Eta hizkuntza. Euskara eta gaztelania daudela azaldu nahi zaie. "Harrera egiterakoan ohituren eta bertako lekuen berri emanen diete".

Boluntarioak

Gurutze Gorriak eta Anitzarteanek boluntario izan nahi duten makina bat sakandarren deiak jaso dituzte. Jende guztia antolatuta eta egitekoak zehazteko asteazkenean, 17:30ean, bilera egingen dute guztiak Altsasuko Otadia aterpean. "Laguntzeko beta izanen da" esan dute teknikariek.

TXARTEL
WWW.TXARTEL.NET

Garraio kostea doan
60etik gorakoetan
Prezio guztiak BEZ barne

Stock denbora errealean
Entrega epea
24 orduetan,
17:00ak baino lehen eginda

948 564 002
txartel@txartel.net

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 18

ARBIZU Errepresioari stop, elkartasuna Rubenekin. Pilota: Arbizu vs. Andoain. 18:00etan, kiroldegian.

ETXARRI ARANATZ Gazte Asanbladaren eta gaztetxearen urteurrenak: **Bolante baten historia** dokumentalaren emanaldia. 19:00etan, kultur etxean.

ARBIZU Errepresioari stop elkartasuna Rubenekin. Elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ARBIZU Oscar Terolen Mundos para los ojos antzezlan. 20:00etan, Eko-kanpineko Amari Yoga aretoan.

OLATZAGUTIA Anita Parker taldearen kontzertua. 23:00etan, Barandi tabernan.

ARBIZU Errepresioari stop, elkartasuna Rubenekin. Kontzertuak: Bake faltua, Boot boys 2231 eta Igitia taldeak. 22:00etan, gaztetxean.

LARUNBATA 19

UHARTE ARAKIL Dale fuerza, dale vida ekimena: Aralarko Santutegira elkartasunezko zortzi aldiz igotzea. Puzgarriak eta pintxoak. Aurkezleak: Pello Reparaz, Joseba Ezkurdia eta Juan Martinez de Irujo. 06:00etatik 18:00etara, herrian eta santutegian.

IHABAR Udaberri eguna. Ihabarko gazta berriaren irekiera, postre lehiaketa, bertsolariak, otamena, musika, bazkaria, puzgarriak eta txokolatada. 10:30etik aurrera, herrian.

UHARTE ARAKIL San Jose meza nagusia.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Coda gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 18: 19:00
Igandea 20: 19:30

Competencia oficial gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 24: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Drive my car filmaren emanaldia
Igandea 20: 19:30

El brindis zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 24: 19:00

12:30ean, Aralarko santutegian.

IRURTZUN Emakumeei buruzko XXIX jardunaldiak. Afro Urban dantza Ainhoa Carrera Igeltzekin. **Ahaldun zaitez dantzaren bidez.** Irurtzungo emakume taldeak antolatuta. 18:00etan, gimnasioan.

IGANDEA 20

IRURTZUN Iratxo elkartearen mendi irteera: Madotz – Akier – Oderitz. 07:00etan, egoitzan.

22.korrika

HITZKIN

OSTIRALA 18

LIZARRAGA Korrika Kulturala. Hitzaldia: **Euskal dantzak eta Lizarragako zortzikoa.** Hizlaria: Miguel Navarro. 20:00etan, Azi-Iturri-Txokoa elkartean.

LIZARRAGA Korrika Kulturala. Kantu-afaria. 21:30ean, Azi-Iturri-Txokoa elkartean.



ZIORDIA Etxepare Saria irabazi duten albumen azalen erakusketa. **Nafarroako Gobernu**ko euskara zerbitzuek antolatuta. Martxoaren 25era arte. Asteleheneetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara. **Liburutegian.**



IRURTZUN Irurtzungo pintura tailerreko parte hartzaileen lanen erakusketa. Martxoaren 31ra arte. **Pikutabernan eta Tahonan.**

OLATZAGUTIA IX. Lilasterketa. Altsasuko Berdintasun zerbitzuak eta Sakanako Mankomunitateko berdintasun, anizartean eta jarduera fisiko eta kirol zerbitzuek antolatuta. 11:00etatik 14:00etara, plazatik.

IRURTZUN Mago Sunen Bat, 2, hiru... magia! ikuskizuna. 17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Producciones Maestras konpainiaren **Nire beldurrik maiteenak** familiarreko antzezlan. 17:00etan, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Emakumeei buruzko XXIX jardunaldiak. Andreina Jolinen kontzertua. Irurtzungo emakume taldeak antolatuta. 19:00etan, Pikuxarreko terrazan

(eguraldi txarrarekin Barazkigunen).

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 21

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. 12:00etan, Iberdrolaren bulegoaren aurrean.

ASTEAZKENA 23

IRURTZUN Emakumeei buruzko XXIX jardunaldiak. Zinemara irteera. Irurtzungo emakume taldeak antolatuta. 18:00etan, Foru plazan.

Bazkide Zozketa

1. SARIA
LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan
GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a

2. eta 3. SARIAK
LACTURALE: Esneki lotea
GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a

gaztezulo lacturale guaixe fundazioa

ESKELA



Osaba Mitxel

Ez zaitugu inoiz ahaztuko
Maite zaitugu!
Aupa Athletic!!!

Oihan, Mikel, Irati eta Unai

ESKELA



Mitxel Agirre Gorospe



Asko botako zaitugu faltan
Beti gure bihotzetan

Zure lagunak
Olazi

ESKELA



Mitxel Agirre Gorospe



Zure kintoek ez zaituzte ahazten

Olazi

ESKELA



Mitxel Agirre Gorospe

Beti arte, konpañero

Rosa eta Emilio

ESKELA



Mitxel Agirre Gorospe

Ahazten ez dena ez da inoiz hiltzen
Agur lagun, agur txapeldun, agur Mitxel

Zure mus bikoteak bihotz bihotzez

JAIOTZAK

- **Sirin Abatal Boudraa**, martxoaren 7an Arbizun
- **Indara Garcia Garcia**, martxoaren 9an Irurtzunen

HERIOTZAK

- **Mitxel Agirre Gorospe**, martxoaren 10ean Olaztin
- **Maria Rosario Muñoz Maestu**, martxoaren 15ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaxe.eus goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

ESKELA

Mitxel Agirre Gorospe

Eskerrik asko Mitxel



Patin Sakana Iristaketa Taldea

ESKELA

Mitxel Agirre Gorospe

Jokaldi honetan aurea hartu eta joan zara, ixilik, agurrik gabe



Aralar Mendi futbol taldeko jokalariei eta lagunak

ESKELA



Mitxel Agirre Gorospe

(Iñigo Aritza ikastolako gurasoa)


Ikastolako hariztiko hostoak orbel. Besarkada goxo bat familiarendako.

Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle, ikasle eta langileak

ESKELA

Juan Goenaga Idigoras

(2022ko martxoaren 10ean hil zen)



Osaba Juan zeruko izarrik ederrenaren ondora zoaz. Askok maite zaitugu

Harinerako zui illebak
Zumarraga - Etxarri Arantz

ESKELA



Abraham Dueñas Redondo

(Laura Dueñas langilearen aita)

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle, ikasle eta langileak

OROIGARRIA



Esther Irisarri Garasa

XV. urteurrena

Gure oroimenean bizi zara, maite zaitugu eta!!

Zure kuadrila

OROIGARRIA



Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea



V. urteurrena

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin, oroimenean izango zara zu beti gurekin

Etxekoak

OROIGARRIA



Yeray Lanz Azpilikueta

IV. urteurrena

Gure bizitzak argitzen dituen argia izango zara
Beti gure bihotzetan, maite zaitugu

Ixaro eta familia

IRAGARKI SAILKATUAK

LEHIAKETA

Artea eta Ospitaleak lehiaketa: Nafarroako ospitaleko psikiatria pabeloian dagoen horma batean jarriko den lana egiteko, 18 - 30 urte bitarteko artistei zuzendua. Helburua espazio bat sortzea da; partekatzen duten pertsona guztiak humanizatzeko: profesionalak, pazienteak, senideak, lagunak Nafarroako Gobernuak 5650 euro emango dio artistari lana eta honen gauzatzeagatik. Interesa duten artistek beren proposamenak aurkeztu beharko dituzte martxoaren 20a baino lehen encuentros@navarra.es helbidean edo, eskaera-orriarekin eta inskripzio fitxarekin batera, Nafarroako Gazteriarren Institutuaren Erregistroan (Yanguas y Miranda, 27 behea, 31003 Iruña), Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro-bulegotan, Administrazio Publikoaren Erregistroaren urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako lekuean (16. artikulua). Informazio gehiago juventud-navarra.es.

"Erdialde" euskarazko idazlan laburren 15. lehiaketa: 6 urteko gora-

koei zuzendua, maila ezberdinetan banatuta egongo direlarik, maila bakoitzeko 3 sari. Lanak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 3an amaitzen da Miranda de Argako Tudelana kaleko 3. zbkiko egoitzan edo erdialde. euskararenlagunak@gmail.com helbidean. Oinarriak <http://euskararenlagunak.wordpress.com> antolatzaileen helbidean. Sariak 2022eko maiatzaren 28an banatuko dira, Miranda de Argan izanen den "Euskararen eguna" ospakizunean. Irabazleei alde zuzenetik abisatuko zaie.

Konposta eskuragai: Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbuzuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

Altsasuko Txantxari ludoteka Aste Santuan zabalik: Ikasleen opor garaian familia eta lana kontziliatzen laguntzeko, Txantxari Udal ludotekak eskaintza prestatu du 3 - 12 urte arteko haurrentzat, apirilaren 19tik 22ra. Bi ordutegi daude: Lehenik, 08:30etik 13:30era. Orduetegi hori beteko ez balitz, bigarren aukera 11:00etatik 13:30era izanen da. Seme-alabak Ludotekara eraman nahi dituztenek haien izenak eman beharko dituzte martxoaren 24a baino lehen. Horretarako, 948 012 012 telefonoetara deituz, edo www.altsasu.es web orriaren bidez izen emanez. Argibideak ludotekaren emanean dituzte, 948 467 471 telefonoan edo ludoteka@altsasu.net e-posta helbidean iragarki@guaxe.es www.iragarkilaburak.es

OHARRAK

Sakanako Mankomunitatearen Euskarazko zerbizuko dirulaguntzak: Euskaltegiendako, UEUn ikastaroak egin dituztenedako, euskara hutsez udalekuetara joan diren edo, euskara ikasten dauden edo etab) euskaraz jarri duten edo dirulaguntza deialdi ezberdin hauetan eskaerak aurkezteko epea zabalik dago. Eskabide guztiak Mankomunitatearen Laguntzako egoitzan edo egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira. Ez dira posta elektronikoki bidez jasotako eskaerak aintzat hartuko.

Xotako Imanol Arregi eta Roberto Martil, sarituta

ARETO FUTBOLA Xotako entrenatzaileak eta kapitainak 'Termita Verde' saria jaso zuten

Imanol Arregik eta Roberto Martilek badute beste sari bat. As-teartean "Termita Verde" saria jaso zuten Osasunako La Tarta peñaren eskuetatik. Ekitaldi berean Osasunako Chimy Avilak eta Roberto Torresek "Patxitxi" saria jaso zuten. Guztiek pozik hartu zuten saria.

Osasuna Magna Xotak Futbol Emocion Zaragoza taldea hartuko du gaur, ostirala, 20:30ean Lehen Mailako ligako partidari. Espainiako Koparako sailkatu ez izana ahaztu, eta ligari ahalik eta lan onena egitea da Imanol Arregiren mutilen helburua. Entrenatzaileak alta garrantzitsuak dauka, Junho, Raul Rocha, Carlos Vento eta Toni Escribano jokatzeko moduan daudelako. Jokalarien buelta albiste oso garrantzitsua da Xotarendako.

Ion Cerviño selekzioz

Espainiako 21 urtez azpiko areto futbol selekzioaren deia jaso du lehenengoz Ion Cerviño Pueyok. Martxoaren 27tik 31ra Espainiako selekzioak Portugalgo selekzioaren kontra bi lagunarteko partida jokatu ditu Portugalen, eta Canillas hautatzaileak irurtzundarra deitu du. Cerviño aurretik 23 urtez azpiko selekzioarekin konbokatuta egon zen.



Joan zen urtean, pandemiagatik, herriz-herriko ibilaldia egin zen. Aurten Olaztin egingo da. ARTXIBOA

Olaztiko Lilasterketan biltzeko gonbita

ATLETISMOA Igandean Olaztik hartuko du emakumeen IX. Lilasterketa, 12:00etan. Sakanako emakumeak biltzea da xedea, ikusgarri egiteko, eta lehenengoz autobusa antolatu dute. Oinez, patinetan, bizikletan, korrika... nahieran parte hartu ahalko da

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Aurten nobedade askorekin dator IX. Lilasterketa. Hasieran Altsasuk hartzen zuen emakumeak biltzea eta ikusgarri egitea duen proba ez lehiakorrek, joan zen urtean, pandemiagatik, herriz-herriko emakumeen ibilaldia antolatu zen, eta aurten Olaztin izanen da, igandean, martxoaren 20an, 12:00etan. "Joan zen urtean erabaki genuen hemendik aurrera urtero Sakanako herri ezberdin batean antolatuko dugula, eta aurten Olaztiri dagokio" azaldu du Altsasuko Berdintasun Zerbitzuko teknikari Idoia Goikoetxea Gomezek. Berak kudeatzen duen zerbitzuak, Sakanako Berdintasun Zerbitzuak, Ani-

tzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak eta Jarduera Fisiko eta Kirol Zerbitzuak antolatu dute aurtengo Lilasterketa, Olaztiko Udalaren laguntzarekin. Lilasterketan, Sakanako Emakumeak martxan! da leloa.

Autobusa, lehenengoz

Idoia Goikoetxeak nabarmendu duenez, "Sakanako emakume guztiak bildu, elkarrekin egon eta emakumeak ikusgarri egitea" da Lilasterketaren helburua. Emakume guztiak elkartzea errazteko, aurten lehenengoz autobus zerbitzua izango da. "Sakanako Mankomunitateak antolatu du eta doan izango da. Autobusa 10:30ean aterako da

Irurtzundik, herri guztietan aurretik izena eman duten emakumeak jasoz. Lilasterketa eta ondorengo ekitaldi edo festatxoak bukatzen denean autobusa 14:00etan aterako da Olaztitik, emakumeak etxera bueltatzeko" azaldu du teknikariak.

IX. Lilasterketan eta autobusean izena emateko Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzura (berdintasuna@sakana-mank.eus) edo Altsasuko Berdintasun Zerbitzura (berdintasuna@altsasu.net) jo daiteke. Esan bezala, bai bata eta bai bestea dohainik dira. Norbait azken orduan Lilasterketan parte hartzerantz animatzen bada, igandean bertan eman ahalko

du izena, 11:30etik aurrera, Olaztin.

2 km-ko zirkuitua, Olaztin

Lilasterketan parte hartzeko ez dago inolako aitzakiarik. Oinez, korrika, patinetan, bizikletan... nahieran egin daiteke. Antolakuntzak 2 kilometroko zirkuitua antolatu du Olaztiko herri guztiaren. Lilasterketa korrika, bizikletan edo patinetan egiten dutenek bi bira egingo diote zirkuituari, eta oinez egingo dutenek bira bakarra. Helburua guztiek osatzeko moduko distantzia eta erronka eskaintzea da, "garrantzitsuena emakume guztiak biltzea delako" nabarmendu du Goikoetxeak.

Guztiak batera aterako dira, 12:00etan, Olaztiko plazatik. Euria egiten badu, frontoi paretik abiatuko litzateke Lilasterketa, eta frontoian egingo litzateke ondoko ekitaldia edo festa bukaera. Bestela, plazan.

Bukatzeo, festatxoak

Lilasterketa bukatuta, festa bukaera izanen da, plazan edo frontoian. Bildutakoek auzateaz gozatzeko aukera izango dute, Idoia Granizo bertsolariaren saioaz eta bestelako ekitaldiez, dantzaerakusketa barne, gozatzen duten bitartean.

Idoia Goikoetxeak Sakanako emakume guztiak Lilasterketan parte hartzerantz gonbidatu ditu. "Leloak dioen bezala, Lilasterketan, Sakanako Emakumeak martxan!, hori da lortu nahi duguna, emakumeak martxan egotea. Olazti emakumeen bilgunea izatea nahiko genuke, emakumeek ikusgarritasuna izateko" azaldu du. Bestetik, Olaztiko Udalari eskerririk beroenak eman nahi dizkio, eskaintako laguntzagatik.

Eguberri atzeratuak

GIMNASIA ERRITMIKOA

Eguberrietako ohiko erakustaldia larunbatera atzeratu zuen Iskiza Sakana taldeak. Guztira 70 gimnasta inguruk hartu zuten parte, Olaztiko Sutege eskolakoekin batera, ekitaldi ederrean. Erakustaldia primeran etorri zitzaizen aurki jokatu dituzten Nafarroako Kirol Jokoetako txapelketak prestatzeko.



Patin Sakanaren etxeko festa

IRRISTAKETA Olaztin jokaturako Nafarroako Abiadura Iristaketa Indoor txapelketan 154 irristalari bildu ziren. Iristalariak trebatzea, ongi pasa dezatela eta ahalik eta hobekien aritu daitezela, horiek dira hazi nahi duen Patin Sakana klubaren helburuak

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Larunbatean sekulako giroa zegoen Olaztiko Erburua kiroldegian. Nafarroako Kirol Jokoetako Abiadura Iristaketa Indoor Txapelketa zegoen jokoan. 154 irristalari lehiatu ziren pistan, euren senitarteko eta lagunek harmailak bete zituzten eta irristalariak gogoz animatu zituzten, eta Patin Sakana Iristaketa Taldeak kudeatutako tabernan ere, jendetza zegoen. "Hau gure tako festa bat bezalakoa da, guk prestatzen dugulako guztia, ilusioz eta mimoz. Erburuako taberna ere klubetik kudeatzen dugu, eta jasotakoa denboraldiari aurre egiteko ezinbesteko laguntza da. Gure irristalariak ere ongi aritu ziren, eta, beraz, oso kontentu gaude" azaldu du Patin Sakana taldeko entrenatzaile Oscar Zamarron Carravilla altsasuarrak. "Frontoian entrenatzen dugu nagusiki eta horrek, Indoor edo toki itxien kategorian abantaila ematen digu, Iruñeko talde gehienek pistan entrenatzen dutelako. Neska-mutikoei oso ongi pasatu zuten, lasterketaren bat ere irabazi genuen, eta pozik" gaineratu du.

Hogeitabost kide

Patin Sakana taldean 25 neska-mutiko trebatzen dira. Nafarroako Iristaketa Federazioan federatuta daude guztiak, eta lehiaketa taldea da. Patin Sakanaz gain, herriko irristaketa eskolak edo taldeak daude Altsasun, Olaztin, Etxarri Aranatz, Arbizun eta beste. Zamarron Altsasuko irristaketa eskolako entrenatzailea da, 50-60 neska-mutila ditu bertan, eta horretaz gain, Patin Sakana entrenatzen hasi zen duela sei-zazpi urte. "Altsasuko irristaketa eskolakoek eskatu zidaten ea lehiatzen ziren irristalariaren

aritu ote nintzen, lasterketei begira entrenamendu zorrotzagoak eta espezifikokoak egiteko. Izan ere, irristaketa eskolan jokoan eta bestelako bidez neska-mutikoei irristatzen irakasten diegu, baina abiadurako lasterketek beste prestakuntza bat eskatzen dute, askoz ere espezifikoa: postura, bihurtguneak nola hartu, erresistentzia... Animatu nintzen eta ordutik Patin Sakana taldea entrenatzen dut" dio Zamarronek. Adin eta maila ezberdinetako neska-mutikoak dira Patin Sakanakoak, Altsasu, Olazti, Etxarri Aranatz, Lakuntza... eta Sakana guztikoak.

Zamarronekin batera Maidir Agirre olaztiarra eta Unai Villalobos altsasuarra dira Patin Sakanako beste entrenatzaileak. Zamarronek bi astez lehiaketa taldea entrenatzen du, eta arratsaldean lan egiten duenean Maidir Agirrek hartzen du lekukoa. Bestalde, aurtan Patin Sakanakoak aurtan Iruñeko Txantreako pistan entrenatzen hasi dira, asteartean, eta Lagunak klubeko irristalaria den Unai Villalobos altsasuarrak du sakanak Iruñean entrenatzeko ardura.

Astean behin Txantreaka

Sakanako irristalarien aspaldiko arazoa da entrenatzeko toki aproposaren beharra. Frontoietan entrenatzen dute, baina irristaketan lehiatzeko frontoia oso motz geratzen dira. Abiadura irristaketa pista batek belodromo

ASTEAN BEHIN TXANTREKO PISTAN ENTRENATZEN HASI DIRENETIK TEKNIKA ASKO HOBETU DUTE

baten antza du, 200 metro ditu eta peraltea bihurtguneak. Ez da berdina bertan entrenatzea edo frontoi batean. "Adin bat iristen da, 12-14 urte dituztenean, Sakanako baliabideak kontuan hartuta hau txiki geratzen zaie. Askok irristaketa uzten zuten eta beste batzuk Iruñeko klubetara jotzen zuten. Horregatik aurtan erabaki genuen aurtan behin Patin Sakana taldeko irristalari guztiek pistan entrenatzea. Iruñeko klubekin hitz egin genuen, jarrera oso ona izan zuten, eta Txantreako deitu ziguten asteartean ordu batez pista libre zutela eta bertan entrenatu ahal genuela eskaintzeko. Horrela, Txantreako pistan ordu hori alokatzen dugu, eta gure irristalariak Unai Villalobosekin entrenatzen dute, benetako irristaketa pista batean, Nafarroako pista onenean, gainera. Bidaia egiteko gurusoak txandakatzen dira eta kontentu gaude" aipatu du Zamarronek.

Dagoeneko onurak nabaritzen hasi dira. "80 metroko frontoian entrenatzen dugunez, abiadura pixka bat hartzeraoan paretak jaten ditugu. Hasieran gure irristalariak ez ziren pistako bihurtguneko peraltean gora egitera ausartzen, sentsazioa arraroa zelako. Baina Txantreako entrenatzen dutenetik askatu dira, lasaiago daude eta euren teknika asko hobetzen ari da. Nagusien kasuan, euren distantzia luzeagoak egin behar dituzte, eta iraupena landu behar dute. Iruñean askoz ere azkarrago entrenatzen dute, frontoian entrenatzen dutenaren abiadura ia bikoitza, frontoian ezin baita azkar ibili; paretaren kontra bukatuko ote duzun, hori izaten da frontoiko kezka nagusia. Kostatuko zaigu, baina gutxika irristaketa maila



Patin Sakana Taldeko irristalariak, entrenatzaileak eta delegatuak talde argazkia egin zuten. UTZITAKOAK

ona lortzen ari gara Txantreako" dio entrenatzaileak.

Helburua herri txikiek Iruñeko klubekin duten alde parekatzea da, Iruñeko klubak "beste mundu bat" direlako Sakana, Zangoza edo Tuterako taldeekin alderatuta. Zangozan eta Tuteran ere euren dituzten arazo berberak dituztela gaineratu du Zamarronek, eta Txantreako entrenatzaileak alde hori "nabarmen" arintzen duela uste du. "Duela gutxi Pirinioen Arteko Iristaketa Txapelketa jokatu zen eta Frantziako selekzioko irristalariak etorri ziren. Txantreako entrenatzaileak, gure aurretik, eta gure neska-mutikoak txundituta zeuden, eta aldi berean, pozik, euren atzetik entrenatzera sartu zirelako" oizten du, irribarrez.

Iristaketako pistaren falta

Patin Sakanako irristalariak Altsasuko frontoian entrenatzen dute. Ordu aldaketatik aurrera,

PATIN SAKANA TALDEA HANDITZEA ETA IRRISTALARIAK ONGI TREBATZEA DA HELBURUA

eguraldia hobetzen hasten denean, Altsasuko Korazonisten aurrealdean dagoen areto futbol pistan lanean hasten dira. "Ibilbide luzeago bat prestatzen dugu eta han aritzen gara, paretarik gabe, zirkuitu bat balitz bezala. Izan ere, irristaketan hiru modalitate daude: pista; zirkuitua edo asfaltoa; eta indoorra edo frontoi eta kantxa itxietan egiten dena. Korazonistetan egiten duguna zirkuitu entrenamendu gisa hartzen dugu" zehazten du entrenatzaileak. Dena den, kontuz ibili beharra dute, ikastetxera autoak sartzen direlako. Gurusoak ibiltzen dira trafikoa erregulatze lanetan. Arbizuko industri gunera ere jo izan dute entrenatzera, baina autoen arriskua dago. "Ni heldua naiz eta irristaketa lasterketak edo maratoiak prestatzeko errepidean entrenatzen dut, baina nire hautua da. Adin txikikoekin ezin gara horrela entrenatzen ibili, segurtasunagatik" argi du Zamarronek.

Entrenatzeko toki egoki bat izatea, irristalarien betiko arazoa. "Ez gara irristaketa pista estali bat eskatzen, asfaltatutako eremu egoki bat baizik. Sakana guztian ez dugu segurtasunez entrenatu



Lasterketa azkar eta biziez gozatzeko aukera izan zuten ikusleek.



Olaztin maila eta kategoría guztien lasterketak izan ziren.

ahal izateko asfaltatutako toki egoki bat. Kontziente gara pista estali batek sekulako aurrekontua duela; eskatzen dugun bakarra da herrietako plazetan edo kaleetan edo bestelakoetan egiten diren erreforma eta berrikuntza lanetan gu kontuan hartzea" dio Zamarronek.

Altsasuko Zumalakarregi plazan egin diren lanak jarri ditu adibide. "Asfaltatzerakoan zabalera handiagoa eman baliote, estoldak beste toki edo modu batean jarri, eta zebrabide goratuen behar bestelakoak jarri balituzkete, entrenatzeko toki egokia genuke bertan. Eta orain ezin dugu urtero ekainean edo irailean Zumalakarregin egiten genuen Altsasuko Zirkuitu Txapelketa antolatu. Edo Zelandi eskoletan lurra asfaltatzeko egin dituzten lanak zergatik ez dira aprobetxatu asfaltatutako eraztun bat egiteko?" galdetzen du Zamarronek. Herrian obraren bat egin behar denean, irristalarien beharrik kontuan hartzea da Patin Sakanakoek eskatzen dutena, obra txiki batekin euren beharrik ase daitezkeelako.

Beraz, aurten zirkuituko lasterketa gabe geratuko gara Sakanan. "Gezurra badirudi ere, Sakanako makina bat txoko begiratzen aritu gara eta ez dugu aurkitu lasterketa egiteko toki aproposik. Zebrabide goratuak ez badira, estoldak dira edo bestelako trabak. Ea datorren urterako toki egokiren bat bilatu eta lasterketa antolatzerik dugun" espero du entrenatzaileak.

Aspaldiko eskakizuna

Nahiz eta irristaketak gora egin –geroz eta zaletu gehiago daude eta geroz eta proba eta lasterketa herrikoiki gehiago daude– gutxienean kirola izaten jarraitzen du. "Makina bat kirol teknikaririkin bildu izan gara, baina argi dago beti beste lehentasun batzuk daudela. Ez dakit gure eskakizunak egiten ez ote dugun asmatzen, edo ez ote dugun toki egokietara jotzen... baina nekagarria da. Duela 30 urte irristaketa lasterketetan parte hartzen nuen, eta ordutik hamaika pista proiektu ikusi izan ditut: frontoi atzealdean, Dantzalekuan... baina oraindik ezer gabe gaude, frontoian sartuta" nabarmendu du entrenatzaileak.

Izan ere, askok uste dute irristaketan aritzeko frontoia nahikoa dela, "baina ez da horrela. Pis-

tako edo zirkuituko proba bat ikusten dutenean, flipatu egiten dute. Pentsa, Antoniuttin 60 kilometro orduko abiadura hartzerantz helden dira irristalariak. Hori ezin duzu frontoi batean entrenatu" argi du.

NKJ-etako Txapelketak jokoan

Patin Sakana Taldeko irristalariak Nafarroako Kirol Jokoetako Txapelketetan murgilduta daude buru-belarri. Nafarroako Pista Abiadura Txapelketako bigarren lasterketa dute jokoan larunbatean Amaia klubeko pistan, eta hurrengo astean Lagunak klubekoan lehiatuko dira. Pistakoa bukatuta, Zirkuituko Abiadura Txapelketa hasiko da. Denboraldian hamabosten bat lasterketa izaten dituzte, eta Nafarroako Txapelketetan aurreneko postuan sailkatuz gero, Espainiako Txapelketan aritzeko txartela lortu dezakete.

Zamarronek azaldu duenez, klubean ez dituzte kirol helburu handiak jartzen, jakitun direlako zein kirol maila duten eta noraino iristen diren. "Patin Sakana taldea handitzea, haztea, irristalariak ongi pasatzea eta irristalariak ongi trebatzea da gure helburua. Lasterketetara ahalik eta irristalari gehien eramatea, eta haiek ahalik eta hobekien ibiltzea, bakoitza bere helburu jakinekin. Hori da nahi duguna. Gure klubeko irristalari bat Espainiako Pista Txapelketan aritzeko sailkatu da, Nafarroako Pista Txapelketan lehen zazpi postuen artean sailkatu eta gero. Ez genuen inondik inora espero eta oso pozik gaude berarengatik" dio entrenatzaileak. Zenbait txapelketetan ezin dute aritu, ez dituztelako nahikoa irristalari, Nagusien Mailako Ligan, esaterako. Bospasei irristalari beharko lituzkete, eta soilik bi dituzte.

Sanoa eta dibertigarria

Olaztiko Abiadura Irriestaketa Indoor Txapelketa ikustera eskoletako hainbat irristalari joan ziren eta haiek Patin Sakana lehiaketa taldera animatzea da klubeko itzaropena. "Saltoa

"IRRIESTAKETA KIROL DIBERTIGARRIA DA, AURKAKOTASUNIK SORTZEN EZ DUENA" OSCAR ZAMARRON



Mitxel gogoan izan zuten.

Mitxel Agirreri oroimena eta eskertza

Aurreko ostegunean zendu zen Mitxel Agirre Gorospe olaztiarra. Oso ezaguna zen. Futbolaria eta areto futbol jokalaria, besteak beste Olaztiko Sutegiko, Altsasu Kirol Elkarte, Uharteko Arakilgo Aralar Mendiko eta Araiako Alipendiko jokalaria izan zen, baita entrenatzaile, arbitroa eta behar zena.

Beti laguntzeko prest, Patin Sakana taldeko presidentea izan zen duela gutxi arte. Olaztiko Indoor Txapelketako alma materra, txapelketa minutu bateko isilunearekin hasi zen, bere irudia eta lore sorta kiroldegi erdian zegoela. Sakanako zelai eta kantxa askotan ere bere aldeko isiluneak gorde ziren, Mitxelek hutsune oso handia utzi duelako.

ematea kosta egiten da, baina gure atek zabal-zabalik daude" egin du gonbita Zamarronek. Irriestaketa kirol fisikoa da, abilezia izatea eta teknika asko eskatzen duena, "baina dibertigarria eta sanoa da, ez du beste kirolek duten aurkakotasun hori. Lagun asko egiten dituzte eta oso ongi pasatzen dute" aitortu du. Gaur egun guraso ia guztiek euren seme-alabak patinatzen jakitea nahi dute, "eta hori garrantzitsua da, nahi horretatik etorkizuneko irristalariak sortu ahal direlako".



BAIKO PELOTA

Bakaikoa, Promozioko finalera

PILOTA Joanes Bakaikoa eta Iker Elizegik martxoaren 26an Iruñean jokatu den Promozio Mailako Binakako finala jokatu dute, aurreko astean Mallabian jokatu den finalerdian Victorri eta Gaskueri nagusitasun handiz 13 eta 22 irabazi eta gero. Beste finalerdian Salaberriak eta Erostarbek Zabalaren eta Oier Etxebarriaren izenak dituzte aurkari Aitaunen.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Irati Igoaren brontzea

PALETA GOMA Irati Igoa Sesma Espainiako 22 urtez azpiko Paleta Goma Txapelketan lehiatu zen, Palencian, Nafarroako selekzioarekin. Etxarriarra finalerdietan erori zen, Paula Gorostiaga taldekidearen kontra partida oso estuan 15-12 eta 15-12 galdu eta gero. Selekziok, Nafarroa izan zen txapeladuna.

Biak Binakako finalean nahi ditugu

PILOTA Elezkano-Zabaletak Iribarria-Rezusta irabazteaz gain, Altuna-Martijak Laso-Imaz mendean hartzea beharko lukete Binakako final handian egoteko. Altuna-Martijak nahikoa dute irabaztearekin edo alde oso txikiarekin galtzarekin

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Apirilaren 3an Bilbon jokatu den Binakako final handira zein bikote iritsiko diren asteburuan jakingo da. Altuna III.a eta Martija dira aukera gehien duen bikotea, orain arte jokatuak bi partidak irabazi dituztelako. Igandean Laso eta Imaz dituzte aurkari Eibarko Astelenan. Irabaziz gero, final handirako sailkatzeaz gain, Aspeko beste bi bikoei, Iribarria-Rezustari eta Elezkano-Zabaletari, fabore ederra egingo liekete, eta partida hori irabaztea, buruan ez dute besterik. Altuna ikusgarri ari da, baina baita Martija ere. Konfiantza alde dute, oso ongi ulertzen dute elkar eta sasoi bikainean daude. Etxeberriko atzelaria doktoretu dela dio katedrak.

Denetarikok karanbolak Elezkanok eta Zabaletak Iribarria eta Rezusta izango dituzte arerio larunbatean mukurru beteko den Labriten. Sekulako giroa espero da, Zabaletaren aldekoa, eta partida oso estua izango dela aurreikusten da, finalean egoteko bi bikoak irabazi beharrean baitaude.

Elezkanok eta Zabaletak, Iribarriari eta Rezustari irabazteaz gain, beste partidako emaitzaren zain egon behar dute finalera



Martija eta Zabaleta, bi arakildarren arteko finalaz gozatu nahiko genuke. ASPE PELOTA

sailkatuko diren ala ez jakiteko. Eurak finalean egoteko Lasok eta Imazek Altuna III.aren eta Martijaren kontra galdu beharko lukete eta Iribarriari eta Rezustari 22 eta 16 edo alde gehiagorekin irabazi. Bestalde, Lasok eta Imazek euren partida irabazi beharko lukete finalean egoteko edo gainontzekoen emaitzen karanbola itxaron.

Elezkano-Zabaleta dira finalean sailkatzeko zailtasun gehien duen bikoak, baina atzelari etxarrendarrak ez du inola ere etsi. "Gaizki gaude, baina finalerako

sailkatzeko aukerak ditugu eta larunbatean gogor borrokatuko gara" azaldu zuen Zabaletak material aukeraketan. Atzelariak aitortu du ez duela txapelketa ona egin, Lasoren eta Imazen kontrako azkeneko partidaren ez zuela eroso jokatu eta ez zuela behar bezala gozatu. Konfiantza falta dutela uste du, baina Iribarriaren eta Rezustaren kontra "egoerari buelta" emateko gogotsu daudela argi utzi du. "Partida gogorra izango da, baina hasieratik borrokatuko dugu" azaldu du etxarrendarrak.



1. AUTONOMIKOA GIZON.

2. FASEA. 10. JARDUNALDIKO EMAITZA
Lagun Artea - Fontellas 1-2

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO JAITSIERA

1 Zaramonza 41
12 Lagun Artea 22

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:30 Lagun Artea - Zaramonza (Zelai Berr)

Lagun Arteak liderra hartuko du

Puntu faltan daude lakuntzarrak, eta etzi partida zaila dute liderraren kontra.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

2. FASEA. 4. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Idolia 0-4

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. MANTENTZEA

1 Mulier B 30
9 Altsasu 1

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

10:45 Mulier B- Altsasu (Salestarrak)

Altsasu liderraren etxera

Altsasuk Mulier B liderra izango du aurkari partida gogorrean.

FUTBOL PREFERENTEA

24. JARDUNALDIKO EMAITZA
Etxarri Aranatz - San Andres 1-5

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Injerto 57
14 Etxarri Aranatz 20

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

11:00 Itaroa Huarte - Etxarri (Uhart)

Etxarrik partida zaila du aurretik

Etxarri Aranatzek sailkapenean bigarren den Itaroa Huarteren kontra jokatu du.

FUTBOL ERREGIONALA

22. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Beti Kozkor 4-2

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1 Aurrera 51
2 Altsasu 49

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Aurrera - Altsasu (Leitza)

Altsasuak lidergoa lortzea du jokoan

Altsasuk Aurrera liderra izanzen du arerio eta lehen postua bera dago jokoan.

Karasatorre eta Gasanz Betagarriko podiumean

MENDI LASTERKETAK Eneritz Karasatorre bigarren izan zen eta Jabi Gasanz hirugarren

Igandean II. Betagarri Trail mendilasterketa jokatu zen Antzinen. 24 kilometroko lasterketa Aimar Azpirozek irabazi zuen (1:58:00), Ioar Tabar bigarrenarekin lehia estua izan eta gero (1:59:13). Jabi Gasanz hirugarren izan zen (2:08:09). Emakumezkoetan Aitziber Mendibil gailendu zen (2:32:37), sailkapen absolutuan 18. Eneritz Karasatorre bigarren sartu zen (2:35:10), sailkapen absolutuan 20. Goio Rodriguez 44. sailkatu zen (3:00:02) eta Marta Irañeta 53. (3:08:26), emakumezkoetan bosgarren.

Lasterketa laburra (8 km) Mar- kel Garaioak (37:21) eta Karmele Garaioak (47:43) irabazi zuten. Aimar Araña bederatzigarren izan zen (40:32), Alain Flores 18. (45:51) eta Ismael Lopez de Goikoetxea 25. (48:09).

Goikoetxea Espainiako KB-ean

Asteburuan Espainiako Kilometro Bertikalaren Txapelketa jokatu zen Caceresen, Las Hurdeseko Kilometro Bertikala (3,5 km, 1.015 m desnibel +), Cerro Rongiero (1.627 m.) igoera hartzen duena. Euripean, Kataluniako Pere Rullan (39:29) eta Onditz Iturbe (47:35) izan ziren txapel- dunak. Eukeni Goikoetxea altsa- suarra 34. sailkatu zen (44:43).

Altsasuko Duatloia, betiko formatuan

DUATLOIA 100 partaidetik gora izango dituen Altsasuko Duatloia nagusia 15:45ean abiatuko da, larunbatean, Foru Plazatik. Goizean Nafarroako Kirol Jokoetan ariko diren 100 gaztetxoak lehiatuko dira Txioka ikastola parean, 10:30etik aurrera

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Pandemia zela eta, joan zen urtean Ibarrea industri gunean jokatu zen Sakana Triatloi Taldeak antolatutako Altsasuko Duatloia. Baina aurten probak bere betiko ibilbidea eta forma- tua berreskuratu ditu eta ohi denez, Foru Plaza izango da Altsasuko Duatloiko bihotza, irteera eta helmuga.

Altsasukoa sprint distantziako proba da. Partaideek 5 kilometroko korrikaldia izango dute hasteko, ondoren 22 kilometroko txirrindularitza proba eta, azkenik, 2,5 kilometroko korrikaldia. Arratsaldean jokatu da. 15:45ean emakumeak abiatuko dira, 15:50ean gizonezkoak, eta 15:51n errelebotan ariko diren taldeak, hau da, taldekide batek korrika- ko atala osatuko du eta besteak bizikletakoa. Antolakuntzatik adierazi dutenez, 88 duatleta daude izena emanda, eta 10 errelebo talde. Beraz, 108 partaide espero dira.

Altsasuko herri gunean pres- tatutako 2,5 kilometroko zirkui- tuari bi bira eman ondoren, Iortia Kultur Gunean kokatuta egongo diren boxetan bizikleta hartu eta 22 km-ko distantzia osatu beharko dute duatletek. Tartean Altamira igo beharko dute, eta Zegamako Ortzaurreteko



Joan zen urtean Ibarrean jokatu zen Altsasuko Duatloia. Aurten plazara itzuliko da.

bidegurutzeraino iritsi. Boxetan bizikleta utzita, herriko zirkui- tuari bira bat emango diote, pla- zako helmugaraino heltzeko.

Altsasura gerturatzeko gonbitea

Duatloia ikusteko proba polita da, eta Sakana Triatloi taldeak Altsasura gerturatzeko gonbita egin die sakandarrei. Altsasuko herri guneaz eta Iortia Kultur Gunean kokatuta egongo diren boxetan bizikleta hartu eta 22 km-ko distantzia osatu beharko dute duatletek. Tartean Altamira igo beharko dute, eta Zegamako Ortzaurreteko

izan daiteke. Bestalde, antola- kuntzak lasterketa aurrera ate- ratzeko babesle guztien ahalegi- na eskertu du.

Gaztetxoek, goizez

Kategoria txikiko duatletek -103 daude izena emanda- Txioka haur ikastolaren inguruan antolatutako zirkuituan lehiatuko dira, goizean, Nafarroako Kirol Jokoetarako baliagarria izango den Altsasuko Duatloian. Hurrenez hurren, benjaminen laster- keta 10:30ean hasiko da, kimue- na 10:45ean, haurren 11:30ean

eta kadeteena eta jubenilena 12:00etan.

Hurrengo astean Arbizukoa

Altsasuko Duatloia jokatu eta hurrengo astean, martxoaren 26an, Arbizuko Duatloia jokatu- ko da, aldi berean Nafarroako Distantzia Motzeko Txapelketa izanen dena. Izena ematea zaba- lik dago Nafarroako Triatloi Federazioko webgunean.

Sakandarrak Arangurenen

Aurreko igandean VIII. Arangu- ren Ibarra Duatloia jokatu zen, eta Sakana Triatloi Taldeko dua- teletak oso txukun aritu ziren. Sprint distantziako proba zen (5 km-20 km-2,5 km), eta lehia oso estuan, Miguel Ruiz (54:22) gai- lendu zitzaion Martin Eslavari (54:29). Bi sakandar Top-20an sailkatu ziren. Juan Carlos Gomez 16. sailkatu zen (58:10) eta Juan Luis Maiza 18. (58:26). Euren tal- dekide Juan Martinez del Olmo 56. postuan iritsi zen helmugara (1:05:42). Emakumezkoetan Ma- rina Etxenike izan zen azkarre- na (1:07:43).

Harrobia, oso ongi

Aranguren Nafarroako Kirol Jokoetarako lasterketak hartu zituen baita ere, eta Sakana Triat- loi Taldeko Mazkianar Dieguez anai arrebek erakustaldi ederra egin zuten. Benjaminetan Anai izan zen txapelduna, kimuetan Unai bigarren sailkatu zen eta nesken haurren mailan Eider podiumera igotzear egon zen, laugarren sartu baitzen. Bestalde, mutilen haurren mailan Oihan Andueza bosgarren iritsi zen helmugara eta Aratz Mendoza zazpigarren, eta kadeteen mailan Mikel Arrizabalaga bigarren sailkatu zen, primerako laster- keta egin eta gero.

Nafarroako Herri Kirol Jokoen jardunaldia igandean Etxarrin

HERRI KIROLAK Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletako taldeak lehiatuko dira 10:30etik aurrera, frontoian

Igandean Antsoaingo kirol gunea txiki geratu zen 35. Nafarroako Herri Kirol Jokoetan parte har- tu zuten neska-mutikoak hartze- ko. Aurten zortzi elkarrekin sortutako taldeak lehiatzen ari dira, Sakanatik Andra Mari eta

Iñigo Aritza ikastoletatik sortu- tako taldeak. Araxes, Antsoain, Berriozar, Menditarrak eta Ba- saburua dira beste klubak.

Herri kirol proba konbinatuan kimuen mailan 21 talde lehiatu ziren, Andra Mari ikastetxeko

bost talde eta Iñigo Aritzako hiru tartean, haur mailako proba konbinatuan zazpi talde, Andra Mariko bi tartean, eta kadeteetan sei talde, Andra Mari tartean. Sokatiran, haur mailan (480 kilo) Andra Mariko bi talde lehiatu ziren, eta kadete mailan (540 kilo) Iñigo Aritzako bi talde eta Andra Mariko bat.

Bigarren jarduna, Etxarrin

Euskalerrinari pilotalekuak bi- garren jardunaldia hartuko du igandean, 10:30etik aurrera.



Bi sokatira tiraldi, Antsoainen jokatutako lehen jardunaldian. UTZITAKOIA

Bizitzaren hutsuneak, zalantzak eta hautaketak

Udabiltzaren 'Geuretik sortuak' ekimenaren barruan Bonbon Beltz konpainiak 'Harri minak' antzezlana sortu zuen, eta martxoaren 25ean Etxarri Aranazko kultur etxean emanaldia egingen du. "Zuloak" eta zalantzak dira lanaren oinarria

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ

Bonbon Beltz antzerki konpainiak Oñatin egin zuen Udabiltzaren *Geuretik Sortuak* proiektuaren egonaldia. "Bertan ikerketak egin ditugu eta jakin genuen ia hiri perfektua zela: kooperatibak, auzalana, autonomia energetikoari buruz gauza asko egin dituzte, Internet sare bat sortu dute, gizarte aktiboa da, euskalduna... Dena perfektua dirudi, ez da dago nonbait zulorik?", azaldu du Domika Titika Recalt antzeleak. Eta zuloak topatu zituzten; lur azpian. "Kobazuloak badira Oñatin, asko, mendian, Arantzazuko aldea ere lurretik gora doan zuloa da". Datu horiek guztiak hartuta eta "abanikoa" Euskal Herri osora zabalduta, "Oñatin sortu behar genuelako, baina beste herritan ere ulergarria izan behar zuelako", konpainiak *Harri minak* antzezlana sortu zuten. Martxoaren 25ean, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean emanaldia egingen dute.

"Zuloaren ideiarekin jolastu dugu. Euskal Herriaz hitz egiten dugu, sareak eraiki behar direla, baina hortan ere zuloak badirela. Gizarte antolakuntzari buruz, baita guk pertsonalki eta aktore bezala erakusten dugunaren azpian zer dagoen ere". Harri minak "zalantza bidaia" da: sorkuntzaren zalantzak, Euskal Herriaren inguruko galderak, pertsonak bezala dituzten zalantzak... Bi aktore agertzen dira, kobazulo bat zeharkatzen, espeleologoak balira bezala, eta bat-batean blokeatuta sentitzen dira. "Bi zulo agertzen dira, bi aukera, baina zein aukeratu?". Antzezlana, beraz, bizitzan egin behar diren aukeraketei buruz hitz egiten du. "Momentu batean oholtzan gaude eta esaten dugu: 'Erabaki bat hartu behar dugu, publikoa ordu barru etorriko da eta oraingo ez dugu erabakirik



Dominika 'Titika' Recalt eta Josune Gorostegui antzeleak. UTZITAKOIA

"OÑATI HIRI PERFECTUA ZIRUDIEN, BAINA ZULOAK AURKITU GENITUEN, LUR AZPIAN"


hartu". Harri minak izenburua Oñatiko kobazulo horiei garrantzia emateko modu bat da, metafora bat izan daiteke ere bai: "Herri minak, gure minak, zalantzak, galderak...".

Egonaldia

Udabiltzak sustatutako *Geuretik sortuak* ekimenean artistek egonaldi artistikoak egin dituzte zenbait herritan. Bertako errealitatean, historian eta abarretan oinarritu behar ziren haien lana sortzeko. "Guri Oñati egokitu zitzaigun. Bidaia asko egin ditugu. Mugimenduko feministako gazteekin egon gara, etorkinekin harrera egiten dietenekin, kooperatibako kideekin, zinegotziekin, Arantzazun egon gara, Arrikutz kobazulora bisita egin dugu, historialariek... ez ditut denak gogoan, baina Oñatin inplikaturako pertsonekin egon gara".

Kondea eta Txantxikuak aipatu ditu Recaltak, XIX. mendera arte konde baten menpean zegoelako Oñati, eta "esker txarrekoa" zen. "Saltoka sartu behar ziren jau-regira, eta horregatik txantxikuak edo igelak deitzen zitzairen". Menkotasan hori ere antzezlanean erakutsi dute: "Guk dauzkagun gure menpeko espazio propioak; errealitate hori zabaltzeko". Datuak jaso ondoren inprobisazioaren bitartez datu horiek "probatu" zituzten. Amancay Gaztañagak zuzendu ditu, "fintzen eta egokitzen joan gara, emaitza hori oholtzara eramateko".

Geuretik sortuak ekimenean parte hartzea "oso interesgarria" izan dela esan du Recaltak. "Lan hori gabe, nik ez nuke Oñati ezagutuko". Orain ekimenean parte hartu duten zenbait herritan, Etxarri Aranatz tartean, antzezlanean emanaldia egingen dute, "eta inoiz bisitatuko ez genituzke lekutatik pasa gara". Batzuetan "nekarria" den arren, "ofizioaren" barruan dago. Pandemiarekin dena "blokeatuta" zegoen eta aukerarekin "oso pozik" daude, baina Recalten ustez instituzioen lana izan behar luke.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Likidoen erretentzioa arintzen laguntzen duten elikagaiak

Beroak estutzen duenean gorputzean likido gehiago erretentzeko joera dugu. Izan ere, oporretan pisua irabazten dugu, tenperatura altuen eta inguruneke hezetasunaren erruz. Hona hemen likidoen erretentzioan laguntzen duten gomendioak eta hantura eta kiloak murrizteko aholku batzuk.

1. Limoia. Gehitu limoi bat ur edalontzi handi bati. Zure giltzurrunei lan eginarazten lagunduko die.

2. Apioa. Oso hidratatzailea da, % 95eko ur edukiarekin. Entsaladan edo irabiatua har dezakezu beste fruta batzuekin, zaporea nahiko desatsegina da baina beste barazki batzuekin zopan nahasiz ez da hainbeste nabarmentzen.

3. Oilaskoa. Ur asko edukitzeaz gain, potasioan ere aberatsa da, eta, beraz, ekintza diuretiko natural oso garrantzitsua da.

4. Berenjena. Kaloria gutxiko eta sodio maila oso baxuko super elikagai bat da.

5. Tomatea. Likpeno, beta-karoteno, azido foliko,

potasio, C bitamina, flavonoide eta E bitaminaren iturri aberatsa da. Elikagai horiek guztiek ematen diote tomateari bere eragin diuretikoak.

6. Pepinoa. Uraren komposizioa % 95ekoa da, kaloria gutxi baina B, C eta K bitaminetan aberatsa. Potasioa eta magnesioaz gain, pepinoa diuretiko natural indartsua da.

7. Sandia. Uretan eta bitaminetan aberatsa da. Ikerketa batzuek diote komposizioan dauden bitaminek eta mineralek kirolarientzako edariek baino askoz hobeto hidratatzen dutela.

8. Alkatxofa. Zuntz eta potasio ugari.

9. Zainzuriak. Azido foliko eta ur ugari.

10. Azken ukuitua lehoi hortzen, zaldi isatsaren, te berdearen edo Javakoaren eta mihilu tearen infusioek ematen dute. Azken biek digestio propietateak dituzte.

Ariketa fisikoa egitea ahaztu gabe, batez ere ibiltzea, gatz gutxiko elikagaiak jatea eta dietatik lataratutako edo prozesatutako elikagaiak kentzea.



LAKUNTZAKO MUSIKA ESKOLA

Elkartasun doinuak

Lakuntzako musika eskolak, baita Irurtzungoak eta Altsasuko musika eta dantza eskolak ere, UEMyD elkarteak deitutako elkartasun emanaldia egin zuten Ukrainan gertatzen ari denaren aurrean, "bakearen aldeko eta gerraren biktima eta errefuxiatuei elkartasuna adierazteko". Ikasle eta irakasleek Alaitasunaren ereserkia interpretatu zuten.

Mundua bitan banatzen da

Bizitzaren bitasunak dira 'eRRe. Aldarri bat bertsoz' antzezlanaren ertz nagusia. Bertsoa, antzerkia, musika eta poesiaren bidez lau lagunen bizipenak azaleratzen ditu. Martxoaren 26an emanaldia izanen da, Olaztiko kultur etxean.

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

Ondo definitzen ez dakiten emanaldi bat. Hori da *eRRe. Aldarri bat bertsoz* ikuskizuna. Genero aldetik ere zaila da definitzea: bertsolaritza, antzerkia, musika eta poesia uztartzen ditu. Baita dantza ere egiten dutela esan du Aner Peritz Manterola antzezleak. "Bertso emanaldi izena ematen diogu, baina antzerkitik ere dezente du; dena lotzen duen hari nagusia da. Guk geuregandik eta jendearendako sortutako emanaldi bat da". Martxoaren 26an, larunbatean, 19:00etan, Olaztiko kultur etxean izanen da, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuaren Martxoaren 8ko egitarauaren barruan. Sarrera doan da, baina aurretik gonbidapena hartu behar da.

"Egia esan, ikuskizuna sortu genuen Lanku kultur zerbitzuak proposamena egin zigulako, ez guri bururatu zitzaigulako. Proposamena oso irekia zen, eta *Erradikalak gara* eta *Gorria* ikuskizunen ondoren, horiek bukatzera zihoazela, erreleboa hartzeko zerbaitekin egin behar genuen". Haizea eta Oihana Arana Cardenal, Leire Vargas Nieto eta Peritz dira proiektuaren antzezleak, eta haien bizipenetan oinarritzea pentsatu zuten. "Normalean hitz egiten dugunaz, interesatzen zaigunaz, gure egunerokoaz". Ez zuten "inongo mundu abstraktuetara edo kanpoko ideietara" joan beharrik: "Geuk kontatzeko geneukan hori badakigu zer den". Bertso plaza eta plaza publikoan hainbeste landu ez diren gaiak plazaratu dituzte.

Burua eta gorputza. Bizitza eta heriotza. Natura eta kultura. Emakumea eta gizona. Bitasunak dira *eRRe* ikuskizuna-



'eRRe. Aldarri bat bertsoz' ikuskizunaren une bat. LANKU

ren gai nagusia. "Gure egunerokoan gauzak nola bizi ditugun hitz egiten joan ginen eta guretzat garrantzitsuak ziren gaiak azaleratzen joan ginen". Horiek ateratzen joan zirela, marko egokia zela pentsatu zuten: "Bitasunek nola eragiten dute, nola dagoen mundua bitan banatuta, birentzat egina". Bitasun konkretuetara jo dute, esaterako, genero bitasuna, gazte eta zaharren arteko bitasuna, sexualitatea... "Zerrenda luze bat egin genuen, eta gehien interesatzen zitzaizkigunak edo lantzeko egokienak zirenak aukeratu genituen; betiere gure ikuspuntutik". Hainbeste landu ez diren gaiak jorratu dituzte ere.

Bertsoa

Ikuskizun berritzailea dela askotan aipatu diete, "baina ez dakit zenbateraino". Berritzailea da haien errealtate horiek ez direlako orain arte oholtzaren gainean horrenbeste azaleratu, "bai plaza publikoa bai bertso plazan". Bertso plazan gertatzen denari buruz askotan hitz egiten dute, "bertsoa ez delako mundutik aparteko ezer; bertan gertatzen diren mekanismo, zapalkuntza eta inertzia guztiak beste hainbat esparrutan agertzen dira ere". Forma aldetik, modu "autokonzientean" batean "apurtzailea" izatea bilatu dute, "deserosoagoa". "Diskurtsoan saiatzen baginen ertz berriak bilatzen, orain arte aipatu ez diren gauzak plazaratuz, saiatu gara forman ere egiten genekienean ez gertatzen". Bertsoan badakite, "bertsoak batu gaitu", baina beste diziplinak landu dituzte ere: "Oihana eta Leire idazleak dira eta ni musikaria naiz. Baina haratago joaten saiatu gara". Horregatik antzerkiaren apustua egin zuten. "Gorputzan urrutien geratzen zitzaigun esparrua landu dugu, bertsoan ez delako gorputza eta mugimendua hainbeste lantzen". Ordura arte egin ez zituzten gauzak egiten saiatu dira, "eta seguru nago ez dugula egiten ondo ikasi, baina saiatu gara behintzat duin samar izan zedin".

Ikuskizunak hamar zati dauka; hamar eszenatan banatuta dago, eta eszena bakoitzean bitasunei buruz hitz egiten da. Baina ez du esan nahi hamar bitasun lantzen direnik, "eszena batean bitasun bat baino

gehiago landu daitezke". Edurne Azkarate da *eRRe* ikuskizunaren zuzendaria. "Behin zerrenda egin genuen, zertaz hitz egin nahi genuen bagenekie-nean, inertziak hasi ginen prestatzen". Zuzendariarekin konaturatu ziren "oso testualak" zirela, eta gero hori oholtzara eraman behar zutela. "Pixkanaka lantzen joan ginen eta Edurnek bideratu zuen sorkuntza prozesua neurri batean eta entseguak".

Probokatzailak

Lankuren proposamena jarraitu zuten *eRRe. Aldarri bat bertsoz* ikuskizuna, baina aukera zuten zuten lau lagunek zizuten bizipen amankomunak plazaratzea erabaki zuten. "Aurretik ez geneukan ideia, bai bai egia da ikuskizuna alde probokatzailetik badaukala. Saiatu gara zuzenak izaten, baita probokatzen, gauzak eragiten, esaten eta aldarrikatzen ere". Ikuskizuna ikusi dutenen artean batzuk "harritu" direla esan du Peritzek, "oso zuzenak eta oso zorrotzak" izan direlako. "Geuretik eta gugandik eragin nahi dugu". Oinarria haien bizipenak kontatzea izan da, "non egon garen eroso eta zergatik, zer aldatu nahi dugun, zer ikusten dugun gaizki, kritika sozialetik asko dauka, autokritikatik ere". Helburua, beraz, gauzak kontatzea eta pentsaraztea da, "bai publikoari bai guri". Haiengandik sortu da, baina orain jendearen artean zabaltzen ari da. "Askapen bat izan da ere".

Orokorrean publikoak ikuskizuna ongi hartu duela esan du Peritzek. "Kritika positiboak izan ditugu, baina ziur bada goela gustoko izan ez duenik eta ezer esan gabe joan dena". Badira dena ulertzeko berriz ikusiko dutela esan diotenak, baita dagoeneko bitan ikusi duena ere. "Esan digute berriz ikusi behar zutela zenbait gauza hobe ulertzeko". Oinarrian bertsoa dago, baina publiko guztiarendako bideratutako ikuskizuna da.

"SAIATU GARA ZUZENAK IZATEN, BAITA PROBOKATZEN ETA ALDARRIKATZEN ERE"

"Lehen sektorearen festa egiteko garai ona da"

Udaberriaren etorrerarekin lehen sektorea aldarrikatu eta lehen sektoreko eta bertako produktuak goraiatu nahi izan dute Ihabarren, eta Udaberri Eguna antolatu dute biharko. Naiara Calderon Aiestaran antolakuntza taldean egon da.

Erkuden Ruiz Barroso IHABAR

1 Zergatik Udaberri eguna antolatu?

Udaberriaren etorrerarekin aspalditik herrian lehen sektorearekin zerikusirik duen festa bat antolatu nahi izan dugulako. Ideia aspalditik geneukan buruan, baina pandemiagatik ezin izan dugu lehenago egin. Gainera, udaberriaren etorrera lehen sektorearekin erlazionatutako festa bat antolatzeko garai ona iruditzen zaigu.

2 Nola sortu zen ideia? Nola gauzatu zenuten?

Larunbatetan elkartean kuadrillatxo bat elkartzen gara eta denen artean hizketan gure gazta berriaren irekieran ekitaldi moduko bat egiteko ideia ateratu zen. Hasiera batean, hori zen ideia, eta jendea gogotsu zebilenez, ekitaldi desberdinak proposatu hasi ziren. Denari forma ematen joan ginen gero.



Naiara Calderon antolatzailea eta Oskar Garcia Ihabarko alkatea. MAIALEN HUARTE

3 Beraz, helburua gazta berriaren irekiera zen?

Bai, hasiera batean hortik ateratu zen. Lehenengo ideia hori zen, baina gero gauza handitzen joan zen, eta saltsa gehiagotan sartu ginen. Forma ematen joan ginenean, lehen sektorea aldarrikatzeko modu bat bezala bideratu genuen; lehenengo sektoreko produktuak goraiatzeko festa bat.

4 Nortzuk zaudete Udaberri Egunean atzean?

Modu batean edo bestean azkenean ihaberdar guztiak parte hartu dugu. Hasiera batean, kuadrillan hasi zen, baina gero herritar gehiagorekin hizketan, denak inplikatu dira modu batez edo bestez festa honetan.

5 Nola antolatu duzue?

Hasieran jendea ideiak aipatzen joan zen, eta gero forma txukunago bat emateko Ihabarko kontzejuekin bildu ginen. Kontzejuak festa batzorde bat antolatu zuen, eta hortik lan talde desberdinak sortu genituen. Lan talde bakoitza gauza batetaz arduratzen joan da.

6 Zer esan nahi du gazta berriaren irekierak?

Kanpaina hasiera moduko bat da. Gazta egiten neguan hasten gara, abendu aldera, baina gazta horrek ontzeprosua behar du, eta orain da, gutxi gora behera, artzai guztiok gazta berria salmentara ateratzen dugun garaia. Orduan, horren harira horrelako ekitaldi bat egiten da. Irekierak esan nahi du gazta salmentara ateratzen den uea.

7 Eta nolakoa da aurtengo gazta?

Aurtengoa, gutxi gora behera, urtero bezalakoa da. Jendea gogotsu egoten da gazta berria probatzeko. Betiko antzera, oso ona dago.

8 Udaberri Egunean gazta berriaren irekierak pertsona ospetsu batek egingo du...

Nire bikotea, Pablo, pilotari izan zen eta Oinatz Bengoetxearekin harremana du. Berari esan genion. Erretiratzen ari da, eta pentsatu genuen polita izango zela berari deitzea bere ibilbidearen amaieran dagoelako eta, alde batetik,

gazte irekierari ikusgarritasun pixka bat emateko pertsona ezagun bat interesgarria zela eta, bestetik, berari omenaldi txiki bat egiteko asmoarekin; 20 urte hauetan egindako ibilbideagatik eta pilotari bezala beti egon delako pilotari gazteen alde leanean. Batez ere, greba garaian egon zirenean berak haien alde aurpegia ateratu zuen. Horregatik omenalditxo hori merezi du.

9 I. Postre lehiaketa antolatu duzue ere. Zergatik postreak?

Uste dugu ardi esnea beti gazta eta mamiarekin erlazionatzeko joera dagoela, eta erabilera anitz gehiago izan ditzake. Orduan, pentsatu genuen jendeari pentsarazteko, eta jendearen parte hartzea eta sormena sustatzeko zer egin genezakeen. Edozein postre egin daiteke, baina osagaien artean ardi esnea egon behar du.

10 Herri bazkaria ere bertako produktuekin egingen duzue.

Ikusi genuen herritik ateratu gabe herri bazkaria prestatu genezakeela; Ihabarko produktuekin bakarrik. Bazkaria prestatzeko erabiliko ditugun produktu guztiak bertakoak dira: babarrunak, zikiroa ere gure arkumearekin egingo dugu, behi eta ardi esnea ere Ihabarkoak dira, eta ardoa Ihabarren egingen dute ere. Bertako, kilometro zero-zero.

11 Zein da lehenengo sektorearen egoera?

Arakil bailara aproposa da bai abeltzaintzan bai lehenengo sektorean lan egiteko. Ez gaude asko sektore honetan lan egiten dugunok, baina garenak profesionalak gara, hortaz lan egiten dugu. Horrek asko errazten digu gure arteko harremanak eta elkarlana. Alde horretatik, oso eroso lan egiten dugu. Baina egia da sektorea orokorrean gure eskuz kanpo dauden baldintzengatik geroz eta gehiago estutzen ari direla. Kostuen igoera, denok pairatzen ari garela, baina lehenengo sektorean bereziki: pentsua, argia, produktuen salmentaren prezio baxuak, burokrazia... Azkenean, estutzen gaituzte. Etorkizuna oraintxe beltz ikusten da, baina nik uste elkarlanean aurrera aterako garela.

ERAMAN ZURE PRODUKTUAK EDONORA

GUK BEHARREZKO DUZUN GUZTIA PRESTATUKO DIZUGU

EDALONTZIAK, POLTSAK, ONTZIAK, KUTXAK...

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 - 948 564 275
info@gkomunikazioa.eus - Foru plaza, 23-1, Aitsasu